

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a / 536. zenbakia




Kaleko giroa

Hainbat tabernarik
elkartea sortuko dute,
kalean egindako
kultura ekitaldien
bidez herriko giroa
pizteko

BARRUAN



GEHIGARRIA



Leire Larrañaga eta
Eukene Larrañaga

BATZOKIKO TABERNA BERRIZ ZABALIK

San Pedro 4 • BERGARA • 943 76 22 24

- Gosariak
- Menua
- Afariak: plater konbinatuak eta kazuelatxoak
- Berezitasuna: piperrak bakailaoz betetako

ILUNTZEAN

Euskal Herriko
pertsonaia ezagunak
geurean

Eguenero,
21:15ean eta 23:15ean


Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

Goitb
Goiena Tebista

**Ikusiko
duzu!**



ATREBENTZIAEZPADA/ Aste bukaeretan ze-nolako giroa dagola pentsatzen jatzu?



LEIRE IRUIN
18 urte




IÑAKI JASO
27 urte



MIREN JOSU ARRAZOLA
35 urte



JESSICA GAMBRA
17 urte



VICTORINO FERNÁNDEZ
79 urte



AINHOA MARTIN
25 urte

Jaixetan, Errege bezperian eta Pazkoetako zapatuan egoten da jentia, baiña aste bukaera normaletan ez da giro haundirik egoten. Gure adiñeko jente asko kanpora juten da, Elgoibarrera.

Girorik ez dago; azkenaldian oso gutxi. Jente asko kanpora juten hasi da eta herrixan giro txikixa dago. Nere ustez jentia kanpora juten da herrixan ez dabela topatzen nahi dabena.


Ez jat pentsatzen giro haundirik dagonik. Umiekin urtetzen garenen kasuan pentsatzen nabil ni. Eta egoera horretan garenendako uste dot beranduegi urtetzen dabela jentia.

Gabian urtetzen da jente gehixen. Esango neuke giro nahikua dagola. Badago kanpora juten dan jentia, eta ni neu be batzutan kanpora juten naiz, baiña ez hemen ez dagolako girorik.

Aste bukaeretako girua poliki-poliki behera doa, eta astian zihar be gauza bera gertatzen da. Gaur egun ez da lehengo moduen; gaur egun oso jente gutxi ibiltzen da kalia.

Aspaldi ez nabillela hemen aste bukaeretan; Eibarrera juten naiz gehixenetan. Baiña lehen, behintzat, ez zan jente askorik ibiltzen kalia, ez zan giro haundirik egoten.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK LORATEGIAK ERRESPESTATZEN Emakume batek ohar bat bidali digu: Matxiategiko 22. zenbakiaren parean arratsalde pasa egoten diren umeei eta haien gurasoei lorategiak errespetatzeko eskatu nahi die. Antza, landareak apurtzen eta lorategi barruan baloia-ekin ibiltzen dira umeak. Era berean, atariko bidea oztopatzen egoten direnei, handik gertu eserlekuak daudela gogoratu nahi die. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

KIROLAK / 10

KULTURA / 12

EAJ-EAren zerrenda

EAJ-EA-ak maiatzaren 25eko udal hauteskundeetarako hautetsien zerrenda aurkeztu du.

Pilota jaialdia Bergaran

Udalak erraztasunak emango dizkie pilota enpresei herrian jaialdia antola ditzaten.

'Egunkaria'-ren aldeko eguna

Gaztetxeak Euskaldunon Egunkaria-ren aldeko eguna antolatu du bihar, zapatua.

ASTEKODATUA

13

AURTENGO KORRIKAK HAMAHIRUGARREN ALDIA

Domekan, apirilaren 6an, iritsiko da Korrika 13 herrira. 15:43 aldera sartuko da Osintxu aldetik, eta 16:27 aldera San Martin plazara ailegatuko da. Gero Elorregi aldera egingo du Korrikak.

BESTEKE SANA

“Egunkaria efektua behar izan da ahotsak entzun ahal izateko. Txalagarriak dira benetan azken

garai huetan entzun ditugun ahotsak. Nik sinesten diet diotenak, haiekin gaude diotenak, hau ezin da onartu diotenak, haiekin gaude diotenak. Elkartasun irudiak ere pozgarriak dira. Badirudi torturaren aurkako kontzientzia berreskuratzen ari garela. Urte asko eta torturatu asko (bakar bat gehiegi da) ditu Euskal Herriak bere historian. Isiltasun asko, gehiegi, izan dute biktimek sufritu dutena salatu dutenean, ostrukaren jarrera gehiegi, eta badirudi azken asteotan jarrera horiek aldatzen hasiak direla. Jarrera aldatzeko gain, torturaren existentziaren gune beltza ere identifikatu dugula dirudi: inkomunikazioa. IÑIGO ELKORO / Abokatua 'Egunero' / 03-04-01

BERAIEK DIÑO / Iñigo Alberdi Amasorrain



Ziber

Zenbat urte dituzu? Nolako zara? Non zaude? Zeintzuk dira zure afizioak?...Guzti hauek txat baten egiten diren galdera tipikoak dira. Idazten gauden momentu berean ordenagailuaren beste aldean dagoen norbaitek erantzuten dizkigun galderak. Aurrean daukaguna ez dugu ikusten, eta horrek ematen duen askatasun eta intimitate sentsazioarekin galdera horiei ematen zaizkien erantzunak ere erabat askeak izaten dira.

Komunikazio ekintza bat dago, nork bere burua aurkeztu edota bere ideiak kanal honen bitartez konpartitzen dituen. Uste dut benetan interesgarria dela ikustea nola gure burua aurkeztu dugun. Txat bateko galderei erantzutean produktu bat saltzen gaude, eta nolabait, gu geu izaten gara produktua, marketing egiten dugu. Gehienetan denok gara gazteak, kirolariak, jatorrak... (eredu birtual-birtuosoren erakusgarri). Je, je, je.

Ezin da ukatu interesgarria dela Suitzako lagun batekin hitz egitea, edota kirol txat batean tenisari buruz hitz egitea edota alemaniar organo jotzaile batekin berriketaldi luzeak edukitzea ingelesez (ez Shakespeare-ren mailakoa, baina bai ingelesa), eta

koadrilako planak posta elektronikoz egitea... ondo dago. Baita ere informazioa topatzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu (adibidez, aliatu eta inbasore hitzen arteko ezberdintasuna ulertzeko).

Komunikazio eredu hau nahiko berria baldin bada ere, gure eguneroko erlazioetan islatu egiten dela esan genezake. Arazoa etor daiteke harremanetarako eredu birtual horrek gure errealitatea baldintzatzen duenean, hau da, gure pertzepzioa inguruarekiko erreala baino birtuala bihurtzen denean. Bestela, baliabide ona delakoan nago, dudarik gabe.

“Txat bateko galderei erantzutean produktu bat saltzen gaude, eta gu geu gara produktua”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,

Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre

Maitane Arizabaleta

Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 4**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 5**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 6**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 7**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 8**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 9**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 10**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaitzak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrek
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00. |
| Domekak:
11:30, 13:00. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOZKETA
Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak tabernetan daude salgai. Era berean, hiru kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan, Caja Rural de Navarra eta Banco Guipuzcoanon.

1975EAN JAIOTAKOAK
1975ean jaiotako bazkaria, hilaren 12an, Txarran-txan. Izenematea, Kutxan (20 euro), San Martin plazan.

1965EAN JAIOTAKOAK
1965ean jaiotako afaria, apirilaren 26an. Izenematea, Etxagi, Popis eta Pol-Pol tabernetan.

LANGILEENDAKO IKASTAROAK
Miguel Altuna Institutuak langileendako bi ikastaro antolatu ditu: batetik, barneratze bidezko elektro-higadura; eta, bestetik, harizko elektro-higadura ikastaroa. 943 76 24 91.

XIPIZARO LUDOTEKA
Xipizaro ludotekak begiraleak behar ditu udalekuei begira. Izenematea Seminarioan egin daiteke apirilaren 11ra arte, 10:00etatik 12:00etara. Argibideak 943 76 23 76 zerbakian.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Txapliguko gaztetxoek ikusentzunezko ikastaroa izango dute bihar, zapatua, Arrizurin, 16:00etan. Domekan itxita egongo da Arrizuri, Korrika dela-eta. Bestalde, Txiskrilabi taldekoek eskulanak (txorimaloak tartean) egiteko aukera izango dute bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etan.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amilaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolvia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amilaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Mendekoste domekarako zekorketa iragarri zuten

Bergarako Zezen Zaleak taldeak Pazkoetan zekorketa antolatzeko ardura hartu zuen orain dela 10 urte. Sasoi hartan 30 lagun zeuden taldean. Jaietako zekorketa antolatzean, taldeak aspaldiko ohitura bati eutsi nahi zion; izan ere, 1965eko ekaina ezker ez zen Bergaran zezen jairik egiten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“abarua”



Arbolapeko babesa.
—Abarua ero keizpia; eurixa danian arbolapera joango gaittuk, abarua jak or da.

GORKA ORTEGA

ASTEKOFILMAK

‘MORTADELO Y FILEMÓN’

ZUZENDARIA: JAVIER FESSER. AKTOREAK: BENITO POCINO, PEPE VIYUELA.

HARIA. Nadiusko gaizkileak DDT arma lapurtu du. Mortadelo eta Filemon TIAko agenteek gaizkileei aurre egingo diete...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

‘AL SUR DE GRANADA’

ZUZENDARIA: FERNANDO COLOMO. AKTOREAK: MATTHEW GOODE, VERÓNICA SÁNCHEZ, GUILLERMO TOLEDO.

HARIA. XX. mendearren hasieran Gerald Brenan Granadako Alpujarretara iritsi zen. Idazle britainiarrak bizi izandako gorabeherak jasotzen dira film honetan. Hango ohituren aurrean egoera bitxiak bizi izango ditu...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean (apirilak 10), 20:00etan. Zinekluba.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA **6 °C**
Eguaztena, 26

MAXIMOA **22 °C**
Eguaztena, 26

ASTEKO EURIA (l/m²) **14,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 26	22 °C	6 °C	— l/m ²
Eguena, 27	20 °C	9 °C	2,2 l/m ²
Egubakoitza, 28	14 °C	11 °C	5,4 l/m ²
Zapatua, 29	20 °C	10 °C	0,2 l/m ²
Domeka, 30	20 °C	7 °C	3,8 l/m ²
Astelehena, 31	18 °C	11 °C	— l/m ²
Martitza, 1	20 °C	7 °C	3,3 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU
Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA
Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI
Irizar 5. 943 7610 81

ANA MOZOS
San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA
Irizar 2. 943 76 03 35

UGALDE & ASOCIADOS
Bidekurutzeta 27. 943 76 11 57
Faxa 943 76 03 02

INJINERUTZA

ANGEL ARIZABAETA PADILLA
Espoloia 10. 943 76 59 18

TEKNIBER
Urarte 18. 943 76 53 19

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

APAREJADOREAK

XABIER GALLASTEGI
Ibargarai 35 (barruko plaza).
943 77 70 00

JOSE INAZIO MONDRAGON
Zurradero 8. 943 76 00 44

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

ALFIS
Ibargarai 22. 943 76 48 48

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA
Barrenkalea 22. 687 73 75 67

JESUS LASKURAIN PÉREZ
Zurradero 4. 943 76 53 53

HAUTESKUNDEAK/ Victoriano Gallastegi buru dutela, koalizioaren zerrendan aurpegi berri asko dago

EAJ-EAk maiatzeko hauteskundeetarako hautagaien zerrenda aurkeztu du

MONIKA BELASTEGI

Aurpegi berri askok osatzen dute EAJ-EAk maiatzaren 25eko udal hauteskundeetarako osatu duen hautagaien zerrendak. Aurkezpena aste honetan izan da, eta lehenengo hamahiru hautagaiak aurkeztu dituzte Batzokian egindako ekitaldian.

Martitzenean aurkeztu zuen, Batzokian, EAJ-EA koalizioak maiatzeko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda, Victoriano Gallastegi buru dela. Ekitaldian, besteak beste, Juan Mari Juaristi EAJren Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea eta Iñaki Galdos EAren Gipuzkoako presidentea egon ziren Gallastegi-rekin batera.

AURPEGI BERRI ASKO

Martitzenean aurkeztutako zerrendan, aurpegi berri asko daude aurreko legegintzaldiarekin alderatuz gero; hiruk besterik ez dute errepikatzen. Lehenengo hamahiru hautagaien artean honako hauek ditugu: alkategai, Victoriano Gallastegi; ondoren Jose Antonio Etxeberría, kandidatura errepikatuz; hirugarrena, German Muruamendiaraz, hautagai berria dugu; laugarrenak ere Juango Arrietak, kandidatura errepikatu egiten du; bosgarrena, Juan Garitano, aurpegi berria da hori ere, eta berriak dira



Irudian, EAJ-EAk udal hauteskundeetara aurkeztuko dituen hautagaietako batzuk martitzeneko aurkezpen ekitaldiaren ondoren.

hortik beherakoak ere: seigarrena, Valentin Egidazu; zazpigarrena, Arantxa Amasorrain; zortzigarrena, Igor Oiarbide; bederatzigarrena, Iñaki Zabala; hamargarrena, Beatriz Lazkano; hamaikagarrena, Lander Arre-

gi; hamabigarrena, Rafael Amasorrain eta hamahirugarrena, Nora Madariaga.

Legegintzaldiarekin batera zinegotzi izateari utziko diotena, berriz, hauek dira: Kontxi Irizar, Felipe Altuna, Nere Amaia

Zabala, Koldo Pereira eta Xabier Zabaleta.

Gaur zortzi zinegotzi ditu EAJ-EAk Udalean eta ikusteko dago maiatzaren hauteskundeen ondoren, izendatutakoetatik zenbatak izango duen zinegotzi izateko

aukera. Kontuak kontu, Gallastegi alkateak eskerrak eman zituen hautagaiei zerrendan sartu izanagatik, eta amaitzear den legegintzaldian koalizioak izan duen jardueraren gaineko oso balantze positiboa egin zuen.

Paulo Elgoro gaztearen egoera salatzeneko taldea osatu dute haren senitartekoen eta lagunek

MONIKA BELASTEGI

Taldeak bi helburu nagusi ditu: batetik, herritarren artean Paulo Elkororen egoeraren berri zabaltzea eta, bestetik, haren baldintza "kaskarrak" hobetzeko erakundeetara jotzea.

Urtarrilaren 28an atxilotu zuten Alemanian. Ordutik hona Municheko espetxean dago eta haren senitarteko, eta, lagunaren esanetan "baldintza oso ankerretan". Zera azaldu dute: "Oso pertsona arriskutsu erregimena aplikatu diote nazioarteko terrorismoaren argudiopean eta baldintza gogorak ezarri dizkiote".

Honela azaldu dute haren egoera: "23 orduz egoten da egunero ziegan eta ordubetez bakarrik irten daiteke patiora, betiere, bi poliziak lagunduta, eta guztiz debekatuta du inorekin berba egi-

tea. Ziegatik irten behar den bakoitzean eskuak eta oinak lotu egiten dizkiote. Ez dauka telefono deirik egiteko baimenik, ezin diogu paketerik sartu, ezta libururik ere. Bi egunkari bakarrik jaso ditzake, eta horiek ere zentsuratuta. Bestalde, eskutitzak interbenituta dauka, eta idatzi guztiak irakurtzen dizkiote".

Bisitak egiteko orduan ere hainbat eragozpen dituztela azaldu dute: "15 egunean behin ikusteko aukera eman digute, ordu erdiz, eta gehenez hiru lagun. Bisitan bi polizia egoten dira eta itzultzaile bat, eta erdaraz berba egitera derrigortuta gaude. Horrez gain, Euskal Herriarekin lotutako gaiez ezin dugu berbarik egin bisitan, ezta Pauloren iraganaz eta geroaz ere, oraingo egoeraz bakarrik. Gainera, astelehenetik egunera bitartean eman dizkigute bisita egunak. Horrela, lana utzi beharra izaten dugu eta

hartu beharreko bi hegazkinak garestiago ateratzen zaizkigu".

GUTUNAK JASOTZEA ESKERTU

Kanpokoekiko harremanak hautsi egin dizkiotenez, "bakarrik sentitzen da; daukan gauza bakarra gutunak dira". Hala, Paulori idazteko eskaria egin nahi diete herritarrei, honako helbidera: Paulo Elgoro Aiaitui / Stadelheimerstr 12 / Munich / D.81549.

Horren aurrean erabaki dute salaketa taldea osatzea. Batetik, herritarrak Pauloren egoeraren gainean informatzeko; bestetik, erakundeetara (Udala tartean) jotzeko, haren baldintzak hobetzeko, eta "eskatuta daukan asilo politikoa eman diezaioten laguntza lortzeko. Espainiako gobernuak birritan eskatu du Pauloren estradizioa, eta guretzat gogorra bada ere, nahiago dugu Alemanian libre bizi izatea ekarri eta torturak jasatea baino".



Paulo, hirugarrena ezkerretik, koadrilarekin egindako argazki baten.

Tabernariak, kaleko giroa suspertu nahian, elkartea eratzen dihardute

MONIKA BELASTEGI

Herriko hainbat tabernari kaleko giroa berpizteko ahaleginean dabilta. Horretarako, tabernarien elkarrekin bat eratzeko lanean dihardute. Kaleko giroa pizteko kultura ekitaldiak antolatzea izango da elkarrekin horren zeregina, besteak beste.

Herriko tabernari multzo baten, (20 inguru) ekimena da. Euren esanetan, kaleko giroak nabarmen egin du behera herrian: "Jendea beste herri batzuetara joaten da, eta kanpotik ez dira etortzen". Hori da, hain justu ere, tabernarien elkarrekin sortzeko abiapuntua. Tabernariak azaldu dutenez, asmoa da elkarrekin bazkide egiten diren tabernariak astean diru kopuru bat jartzea: "Eta gero diru horrekin kultura ekitaldiak antolatzeko asmoa dugu".

GAIZKIULERTUA UDALAREKIN

Kultura ekitaldi horiek urtean barrena dauden jai nagusietan antolatzeko asmoa dutela gehitu dute tabernariak: "Pazkoen ondorengo asteburuan hasi eta, horrez gain, San Martzialetan, Erramuzapatuan eta Aratusteetan, bes-




Kaleko giroa suspertuz gero, negozioendako bultzada izango zela diote tabernariak.

teak beste. Hala ere, asteburu normaletara ere zabal dezakegu ekimena. Ekitaldien gastuek gu egingo gara kargu, eta Bergarako Udalarari azpiegituran eta baimenak emateko orduan erraztasunak eskatu dizkiogu".

Pazkoen ondorengo asteburuan ekitaldiak antolatzeko asmoak gaizkiulertuak eragin dituela azaldu dute tabernariak. "Esandako laguntza eske Udalerá hurr-

biltzean, gaizkiulertua egon da, eta Pazkoak luzatzeko asmoa besterik ez dugula pentsatu dutenean laguntza ukatu digute. Baina aste honetan beste idatzi bat aurkeztu dugu, gauzak hobetu azalduz, eta erantzunaren zain gaudete". Victoriano Gallastegi alkateak esan du tabernariak eman diotela bigarren idatziaren berri, eta Gobernu batzordeak aztertuko eta gero emango diela erantzuna.



On Serafin Esnaola, herriko seme

On Serafin Esnaola zena herriko seme izendatzea erabaki zuen Udalak asteleheneko osoko bilkuran. EAJ-EA, BSA eta PSE-EE alderdien oniritzia jaso du proposamenak. Erabaki horrekin On Serafini egindako lan guztia eskertu nahi diote.

Herriko semetzat hartzeaz gainera, Algodoneran sortuko den bizitoki-auzoan kale edo plaza bati haren izena jartzeko erabakia ere hartu zuen udalbatzak astelehenean.

San Martzial txukuntzeko proiektua egin nahi du Udalak

MONIKA BELASTEGI

San Martzial egokitzeko proiektua nork idatziko duen erabakitze baldintzak kaleratuko dituzte. Asteleheneko osoko bilkuran onartu zituzten baldintza horiek alderdi guztiek aho batez.

San Martzial eremuaren egoera kaskarra dela eta, hura egokitu eta konpontzeko asmoa du Udalak. Proiektua idazteko dago oraindik, eta horretarako lehen urratsa eman zuten asteleheneko osoko bilkuran: lanen proiektu tekniko nork idatziko duen erabakitze baldintzak onartu zituzten. Baldintzak EAJ-EAren, Bergarako Sozialista Abertzaleen eta PSE-EEren oniritziarekin onartu zituzten.

LAU EGITEKO NAGUSI

Lau dira Udalak San Martzialen egin nahi dituen lan nagusiak.

Alde batetik, ermita ostetik datorren errekatxoak errepidean eragiten dituen arazoak ekidin nahi dituzte. Izan ere, hustubidea zikintzen denean urak gainez egiten du eta bidean pitzadurak eragiten ditu. Hori ekiditeko, ura kanalizatu nahi dute hodian bidez.

Beste aldetik, bidea konpondu nahi dute, ermita pareko landan hasi eta Lapatzako bidegurutzeraino.

Horrez gainera, landa txukundu nahi dute, lur berria bota eta belarra ereinez. Gainera, landara autoz zein motoz ez sartzeko modua ere aurkitu nahi dute la adierazi dute Udaleko iturriek, horrek asko hondatzen du eta landa.

Azkenik, landako kantina konpondu nahi dute. Iaz kantinaren teilatua konpondu zuten, eta orain, berriz, leihoak eta kantinaren barruko alde konpontzeko asmoa dute.

LABUR

Bergara Aurrera udal hauteskundeetara aurkezteko sinadura kanpaina hasi da

Baietz 501 sinadura kanpainak 16ra arte irauko du. Sinatzeko, nortasun agiria eraman behar da, eta bi lekutan egin daiteke: udaletxeko idazkaritzan, asteleheneetik egubakoitzera (10:00-14:00), martitzenetik egubakoitzera, (18:00-20:00) eta zapatuetan (09:00-13:00); edo notaritzan (Ibargarai 20), asteleheneetik eguenera (10:00-13:30), egubakoitzetan (10:00-14:00) eta martitzen eta eguenera (16:00-18:00).

Hautesle-zerrendak ikusgai egongo dira udaletxean apirilaren 7tik aurrera

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeak direla eta, hautesle-zerrendak ikusgai jarriko dituzte udaletxean apirilaren 7tik 14ra bitartean.

Bozkatzeko, errolda horretan egotea ezinbestekoa da. Hori horrela, zerrendan agertzen ez denak apirilaren 7tik 14ra bitarteko epea izango du erreklamazioak egiteko.

Euskadiko Itzulian 'Egunkaria'-ren aldeko adierazgarriak eramateko dei egin dute

Herri batzordeak dei egin du astelehenean, Euskadiko Itzulia herri-tik pasatzen denean, *Egunkaria*-ren kamisetak jantzita eramateko. Horrez gainera, pankartak eta kartel txikiagoak egingo dituzte *Egunkaria*-ren aldeko idatziekin, eta Euskadiko Itzulia ikustera hurreratzen diren artean banatuko dituzte.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrika 13 behea. Bergara
943 76 55 00



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Bolu

liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurria

Zurezko artikuluak

Bergarako oleo eta lumatxoak

Koldo Eleizalde 1, Bergara. Tf. 943 76 70 60

AGINTALDIARI BEGIRATUA

VICTORIANO GALLASTEGI/BERGARAKO ALKATEA

“Familia baten moduko administrazioa eskatzen du Udalak, eta ezin da denera heldu”

MONIKA BELASTEGI/EDU MENDIBIL


Victoriano Gallastegik hiru agintaldi daramatza Bergarako alkatetzan eta maiatzaren 25eko hauteskundeetan ere hura izango da EAJ-EA koalizioko hautagaia. Amaitzear dagoen agintaldiaren gainean berba egin dugu Victoriano Gallastegirekin.

Legealdiaren hasieran EHrekin izan zineten gobernuan eta 2000ko uda ezkerko EAJ-EA egon da gobernuan. Zein diferentzia egon da bi etapa horien artean?

Hasieran EH izan zen gobernuan gurekin eta programa bat geneukan elkarrekin. Baina baldintza batzuk ez betetzeagatik gobernutik kanpo geratu ziren eta azken urteotan gu izan gara gobernuan, nahiz eta eurekin adostutako hainbat puntu aurrera eraman ditugun, lanorduen murrizketa edo Xiberoa 2010 egitasmoa (Iparraldeko ikastolendako dirulaguntza), esaterako. Beste hainbat gauzatan ez gaude ados, uraren gestioaren gaian edo azpiegituren kasuan (Eibar-Gasteiz eta AHT). Gure planteamenduekin ez dute bat egin, baina gai horiek ez dira Udalaren kompetentzia. Dena dela, nahiago dut alderdien arteko lankidetzaz bulatzatu.

Badirudi industria garapenari eta azpiegiturei lehentasuna eman zaiela. Hala ere, haserre sumatzen da hainbat herritarren artean zerbitzuak gutxitu direlako: igerilekuak, pilotalekua edo antzerki eta zinema areto egoki baten falta.

Lehenbailehen Zabalotegiko aretoa formatu txikiko emanaldiarentako egokitzeko asmoa dugu eta aurrean zerbaitekin egingo da. Bestalde, Barrenkaleko Arostegi etxean erakusketa aretoa zabaltzea atzeratu egin da, lokala uste baino txartoago dagoelako, eta pilota partiduei dagokienez, erraztasun guztiak emango dizkiegu enpresei aurrerantzean, partiduak Bergaran programatzeko helburuarekin. Antza, enpresei ez zaie Bergara askorik gustatzen... Eibarkoa kenduta, inguruko herrietako pilotalekuak antzeko egoeran daude. Zinemaren kontuan inizatiba pribaturik ez bada, Bergarako Udalak ezer gutxi egin dezake. Badago San Lorentz, Talleres Deba dagoen lekuan, etxabe komertzialak eta bestelakoak jartzeko interesa duen promotore bat eta Udalaren partetik esan genion zinema ere jartzea komeni zela.



MONIKA BELASTEGI

“Gobernuan bakarrik egon arren, nahiago dut alderdien arteko lankidetzaz”

Orain dela pare bat aste BERRIGARAKO erreportaje baten gazte batzuk kexu ziren euren ekitaldirik ez dagoelako...

Ez da erraza premia guztietara heltzea, baina horren gaineko hausnarketa egin beharra dauka dagokion departamentuak. Hala ere, Udalarik kexak helaraztea ondo dago, batzordeetan aztertzeke.

Bestalde, auditorio bat agindu zenuten aspaldi, baina ez da ezer egin...

Seminarioan auditorioa kokatzeko proiektua egin zen, baina hainbat arazo tartean, atzeratzen joan da eta lehenbailehen proiektua

“Seminarioko auditorioko proiektua lehenbailehen adjudikatu nahi dugu”

adjudikatu nahi dugu, diru bat zuzenduta dago eta horretarako. Hala ere, eraikuntza berezia da Seminarioa eta hainbat kontu lotu beharko dira aurretik proiektua gauzatu ahal izateko.

Igerileku berrien proiektuarekin ez da aurreikuspen faltarik egon?

Ez zegoen beste irtenbiderik. Osakidetzak barruko igerilekuak berriz zabaltzeko baimenik ez zigen eman eta zerbitzu probisional eskaintzeko kanpoko igerileku txikia estaltzea erabaki genuen, Igeri Elkartearen proposamenari erantzunez.

Kirolgune berriko finantzazioa ez dago argi oraindik eta

“Agorrosingo kirolgune berrirako dirulaguntza datorren urtetik jasotzen hasiko gara”

lanak hasteke daude. Proiektu horren finantzaketak bestelako asmorik hipotekatu du?

Diputazioan proiektua aurkeztuta dago eta dirulaguntza eskaera egingo da. Datorren urtetik proiektua egiteko dirulaguntza jasotzen hasiko gara. Bost urtean 1.700 milioi pezeta eskatuko ditu proiektuak. Lanak udarako hasiko dira. Atzerapen txiki bat egon da, Bergara KEk Agorrosingo lursailak eskaini dizkigulako. Horregatik dago geldi Agorrosingo aldagelaren gaia. Aldagela probisional jarriko dira ziurrenik. Kirolgune berria oso proiektu garrantzitsua da,

baina horrek ez du esan nahi besterik ez dela egingo. Hor dago, esaterako, Martokoko urbanizazioa, berehala martxan jarriko dena. **Aparkalekuen arazoa konpontzeko neuririk aurreikusi duzue?**

Esku artean daukagun proiektu bakarra Irala kalearen urbanizazioa da. Hor 140 aparkaleku inguru aurreikusten dira. Hemenetik gutxira herrian aparkaleku gehiago izateko negoziatzen gaude. Bestalde, alde zaharreko hainbat kale txukuntza eta oinezkoendako gune bihurtzea da gure asmoa, baina momentuan beste lehentasun batzuk daude. Azken baten, udaleko lanak familia baten moduko administrazioa eskatzen du eta jendeak ulertu behar du ezin garela denera heldu. Gazteen lokalera 80 milioi pezeta bideratu ditugu. Kaleak konpontzeko bideratu genezakeen kopuru hori baina gazteen lokalari irtenbide on bat topatzeko premia zegoen. Jarduera? Beraiek ere izango dute euren lokala. Bien bitartean Kartzelan jarraitu beharko dute, ez dagoelako lokalik. Etorkizunean Jardunekoak Errotaldera joateko eta Udal Liburutegia Arrizurrin kokatzeko asmoa dago. **Etxebizitza sozialak inauguratu dira San Antonion baina jabeek ez dituzte oraindik giltzak eskuratu...**

Arrazoi osoa dute haserre egoteko. Etxebizitza Sailaren arduraduna da eta hainbat arazo egon dira. Javier Madrazo sailburuak apiril bukaeran giltzak izango dituztela agindu zidan aurrekoan. **Babestutako etxebizitza gehiago eraikitzea aurreikusten da?**

Miguel Altuna Institutua Mayc ondora eramateko asmoa dago eta han babestutako 35 etxebizitza aurreikusten dira. Ozaetan beste 32 eraikiko dira eta Osintxun beste 16. Era berean, Angiozarren babestutako eta hitzartutako 14-18 etxebizitza bitartean egingo dira. **Hutsik dauden etxebizitzetako alokairua bultzatzeko zerbaitekin egingo da?**


Etxebizitza Saila gurekin kolaboratzeko prest dago eta etxebizitzetako errolda egin eta horretan lanean hasteko asmoa dugu. **Bukatzeko, hiru legealdi egin dituzte alkatetzan. Zergatik erabaki duzue berriro aurkeztea?**

Bergarako EAJko Juntak galdetu zidan jarraitzea nahi nuen eta oraindik ilusioa eta gogoa daukat herriaren alde lan egiteko eta martxan diren hainbat proiektu gauzatzeko.

Beste udal taldeen iritzia

JESUS MARI GARITANO / BSA

“Udalean ez da inoiz gestio planik egon”



“Alkate presidentzialistaren asmoen arabera jokatzeko da Udalean”

legoa kaleratu zutenean, gure ‘gubernu kide’ ziren denei ahoa “ez dago esku-biderik, hau ezin da egin...” eta halako hitzekin bete zitzairen, hasieran, baina gaur da eguna ezker abertzaleak utzitako botoak nola banatu zozketatzen ari direla.

Eta horrez gain, Bergaran zer? Bergaran ezer ere ez: ez igerilekurik, ez auditoriorik, ez alokairuko etxebizitzarik, ez etxe tutelaturik, ez parkerik,... ez taldeekin harremanik, ez elkarrizketarik, ez garden-tasunik...

FRANCISCO JAVIER GARAI / PSE-EE

“Gure iritzia kontuan izateko lan egin dugu”



“EAJ-EAren eta Saren erdibideko puntu baten izan gara gai askotan”

kale borrokako istiluentatik eta herriak badu gauza positiboagoak erakusteko. Zentzu horretan, turismoa erakartzeko herria gehiago promozionatu beharra ikusten dut.

Hainbat gauza egiteke geratu dira. Esate baterako, anbulatorioak oraindik zerbitzu gehiago izan beharko lituzke Bergara moduko herri batendako eta etxebizitzaren gaiak ere kezkatzen gaitu, oso garesti baitaude. Mizpirualde erresidentziaren prezioak ere nahi baino garestiagoak dira gure ustez.

JOSE LUIS MARTÍNEZ ESPRONCEDA / PP

“Oposizioan ez ditugu gauzak erraz izan”



“Alkateak ez ditu gure mozioak osoko bilkurara eramanez”

nez, aurrekontuen gaia oso deigarria da. Urtero aurrekontuak arrazoizko epe batetik kanpo eztabaidatu dira eta beti egon dira era guztietako atzerapenak. Adibidez, 2003ko aurrekontuak oraindik onartzeke daude eta apirilean gauden dagoeneko. Honek alkatearen utzikeria eta arduragabekeria agerian uzten ditu.

Azkenik, udal gobernuak etxebizitzaren gaiari arreta handiagoa jarri beharko lioke, kontuan izanik zein zaila den gaur egun etxe bat erostea.

ANALISIA

Aldaketa handiko legealdia

Maiatzaren 25ean udal hauteskundeak izango dira. Alderdiak hasi dira zerrendak osatzen eta hauteskunde giroa berotzen hasi da; hauteskunde atarian gaude, atari berezi batean gainera. Izan ere, Batasuna legez kanpo utzi dute, eta ikusteko dago Bergara Aurrera taldeak udal hauteskundeetan parte hartzerik izango duen. Oraingoan, aurkezteko beharrezkoak dituzten 501 sinadurak jasotzen hasi dira.

Orain dela lau urteko hauteskundeekin alderatuz gero,

egoera oso ezberdina da. Orduan tregua garaia zen, eta 1999ko udal hauteskundeon ondoren EAJ-EA koalizioa eta EH elkarrekin izan ziren udal gobernuak. Urtebete iraun zuen elkarlanak. Azken hiru urteotan EAJ-EA egon da gobernuan.

Lau urte hauetan herria asko aldatu da. Hor daude, esaterako, Labegaraietako Industrialdea, Ibagarai izan duen itxuraldaketa, eta zer esanik azpiegitura mailan (Eibar-Gasteiz eta ekialdeko saihesbidea) herriak jasaten diharduena. Bestalde, turismoa

erakartzeko ahalegin berezia egin du Udalak, baina bisitariei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetu beharra dago. Udan etortzen direnek monumentu ederrak bai, baina ezer gutxi gehiago aurkituko dute. Hirigintza alorrean ez da gauza askorik egin aspaldian, ekimen pribatuak bultzatutakoak izan ezik, Ibagarai, esaterako. Bada ordua alde zaharreko kaleak txukuntzeko, oinezkoendako bihurtzeko, eta aldi berean komertzioak bultzatzeko planak abiarazteko. Baina badirudi, Udalak beste lehentasun batzuk

dituela. Horien artean igerileku berriak. Oraindik finantziario ez dago argi eta proiektuaren kostu handiak ez dizkio gauzak erraztuko Udalarri beste proiektu batzuei heltzeko.

Bestalde, kaleko giroak behera egin duela nabaria da. Zinema, antzerki eta musikarako areto egokiak falta dira (auditorioa aspaldiko promesa da), gazteendako ekitaldi gutxi dago, pilotalekua beteta ikustea kontu zaharra da... Herria erakargarri egiteko lana egiteko dago. M.B./E.M.

PILOTA

Udalak erraztasunak emango dizkie pilota enpresei herrian jaialdiak antola ditzaten


Udal Pilotalekuaren erabilera enpresei doan uzteko konpromisoa jasotzen da asteleheneko osoko bilkuran onartutako mozioan

EDU MENDIBIL

Alderdi politiko guztiek bat egin zuten zen asteleheneko osoko bilkuran aztertutako idatziarekin. Horren arabera, pilota enpresei Udal Pilotalekua doan utziko diete, baina Udalak ez du dirurik ordainduko pilota partiduengatik.

Idatziaren laugarren puntuan zera jasotzen da: "Orain dela urte batzuk arte profesional mailako pilota enpresek alokairua ordaintzen zioten Udalarari bere kirol instalazioak pilota jaialdiak antolatzeko erabiltzeagatik. Gaur egun, ordea, ekipamendu publiko horiek dohainik erabiltzea eskatzeaz gain, enpresek diru kopuru bat ordaintzea eskatzen diote Udalarari, pilota jaialdia udalerrian ospatze hutsagatik".

Udalak pilota enpresei kirol instalazioak uzteko konpromisoa hartu du, baldin eta baldintza hauek errespetatzen badira: erabilera dohainik utziko da; enpresak pilota jaialdia egin bai-



Udalak herrian pilota jaialdiak antolatzea nahi du, baina pilota enpresei dirurik ordaindu barik.

no astebete lehenago egin behar du eskaria; baimena emango da, egun horretarako beste ekintzaren bat aurreikusita egon eta bi ekintzak uztartzea ezinezkoa denean izan ezik; eta, azkenik, pilota jaialdiaren enpresa antolatzailea sor daitezkeen kalle-galeren entzule bakarra izango dela jasotzen du idatziak.

BERGARA HIRIA MARTITZENEAN

Bergara Hiria Txapelketaren lehenbiziko partiduak jokatuko dira martitzenean Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Nagusien mailako bi partidu jokatuko dira: Izagirrek eta Altunak Antxiaren eta Zabalarren aurka jokatuko dute eta jarraian Dominguez-Mintegi eta Mendizabal-Larrarte bikoteak izango dira aurrez aurre.

Bergararrei dagokionez, 22 urtetik azpikoetan Iker Azagarrrek Esnaolarekin batera jokatuko du eta nagusien mailan Zagarain azkoitiarra izango da Ander Muguruzaren bikotekide eta Igor Gutiérrezek Enrique Huizi usur bildarrarekin jokatuko du.

ARTXIBOA

FOTOKIROLA



Markel Larrañaga, Espainiako Txapelketara

Markel Larrañagak Euskadiko Karate Txapelketa irabazi zuen joan den zapatuan Bergaran. Larrañaga gazte mailako *kumite* modalitatean nagusitu zen, 70 kilotik beherakoen mailan. Hala, apirilaren azken aste bukaeran Eivissan jokatuko den Espainiako Txapelketara joateko txartela lortu zuen. Markel Larrañagak (argazkian bigarrena eskumatik hasita) Euskadiko gazte mailako selekzioan dihardu eta aurtan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak lortu ditu orain arte. /E.M.

Jokin Ormaetxea azkoitiarrak (Caja Rural) irabazi zuen Gorlako Igoera

E.M.

Caja Rural taldeko Jokin Ormaetxea txirrindulari azkoitiarrak irabazi zuen domekan jokatutako Gorlako Igoera. Hiru lagun heldu ziren helmugara ihes eginda, eta Ormaetxea erraz nagusitu zitzaizen esprintean Lejarretari eta Luengori.

Lokatzak antolatutako proban 126 partaide izan ziren eta horietatik 76 heldu ziren Gorlako helmugara, ibilbideko 90 kilometroak bete ondoren. Gorlara egindako bigarren igoeran erabaki zen lasterketa. Orbea taldeko Iñaki Lejarretak eta Antton Luengok Ormaetxea harrapatu zuten igóeraren azken partean, baina esprintean Ormaetxeak irabazi zien. Azkoitiarrak Urrakiko Igoera irabazi zuen iaz, eta 22 urterekin etorkizun handiko txirrindularia dela erakutsi zuen Gorlan. Garaipena Markel Irizar oñatiarrari dedikatu zion Ormaetxeak. Lejarretak eta Luengok irabazlearen denbora bera egin zuten, 2 ordu, 26 minutu eta 38 segundo. Lehen bergararra Ander Agirre izan zen; Ulma-Cegasako txirrindularia 60. postuan sailkatu zen Gorlan.



Jokin Ormaetxeak erraz irabazi zien esprintean Lejarretari eta Luengori.

Antolatzaileak pozik azaldu ziren lasterketak txirrindularien eta zaleen partetik izandako erantzunarekin. Hemendik aurrera martxoko azken domekan jokatuko da Gorlako Igoera. Era berean, ibilbidea aldatzeak probaren onerako izan dela azpimarratu dute Lokatzakoek.

ZOKKETA ETA EUSKADIKO ITZULIA

Lokatzak egindako zokketa 1.290 zenbakia izan zen sartu osteko lehenengoan. Bestalde, astelehenean lehen aldiz pasatuko da Euskadiko Itzulia Bergararik, 14:35ean (Gorlatik) eta 17:10ean (saihestaldetik). Aipatutako orduan bada autorik ez erabiltzea eskatu dute.



Lierni Errasti seigarren izan zen junior mailako nesken proban.

BETI-BUSTI

Beti-Busti bosgarren sailkatu zen domekan Cuencan izandako proban

Herriko bederatzia piraguista izan ziren Espainiako Kopako bigarren proban

E.M.

Beti-Busti taldeko piraguistek parte hartu zuten aurreko domekan Espainiako Kopako bigarren proban, Cuencan. Bederatzi lagun joan ziren eta Beti-Busti taldekako sailkapenean bosgarren geratu zen.

Kadete mailako proban Martxel Alberdik laugarren postua eskuratu zuen Cuencan. Ibon Etxezarreta eta Markel Cestafe taldekideak zazpigarren eta bederatzia-

garren sailkatu ziren, hurrenez hurren; junior mailako nesken proban Lierni Errasti seigarrena izan zen eta mutilen artean Iraitz Artolak brontzezko domina eskuratu zuen eta Markel Agirre bosgarren geratu zen; seniorren proban, berriz, Eneko Iturrospe bosgarren eta Roberto Puy seigarren izan ziren; azkenik, Iñaki Gallastegi laugarrena izan zen betaronei zuzendutako proban. Esan bezala, Beti-Bustik bosgarren postua lortu zuen taldekako sailkapenean. Irunen jokaturako Espai-

niako Kopako lehenbiziko proban ere bosgarren tokian sailkatu ziren Beti-Bustikoak. Irungo proba martxoaren 16an jokatu zen, eta Martxel Alberdik brontzea lortu zuen orduan.

KARMELO ITURROSPE MEMORIALA

Bestalde, datorren zapatuan, apirilaren 12an, Eskola Arteko Txapelketaren VI. ekitaldia jokatu da Bideberrin, 16:00etan. Eta bigarren urtez proba hori Karmelo Iturrospe zenaren omenez izango da.

Senior mailako eskubaloi partidu erabakigarria bihar

E.M.

Euskadiko Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Bergara KEko senior mailako mutilen taldeak partidu erabakigarria izango du Portugaleteren aurka bihar, zapatua, Labegarietan, 18:00etan.

Edu Orgazen taldea hamabigarraren dago sailkapenean, Sestao eta Ormaiztegi taldeen aurretik. Sestaori puntu baten alde ataraten diote bergarrek eta hamaikagarren dagoen Trapaga puntu bakar batera daukate. Gauzak horrela, bihar behar-beharrezkoa dute partidua irabaztea. Portugalete sailkapeneko erdialdean dago eta ezer gutxi dauka jokoan. Bihar partidua irabazte-

kotan, Bergarak mailari eusteko urrats garrantzitsua emango du. Sailkapeneko azken bi taldeak jaitziko dira mailaz. Azken jardunaldian Bilboko Escolapios taldeari bisita egin beharko dio Bergarak, datorren astean.

BESTE BI PARTIDU

Beste bi eskubaloi partidu izango dira aste bukaeran Labegarietako kiroldegian. Kadete mailako nesken taldeak Aloña Mendiren aurka jokatu du zapatuan, 16:30ean. Domekan, berriz, gazte mailako mutilek Elgoibarri egingo diote aurre, 12:15ean.

Bestalde, senior mailako neskek 24-20 irabazi zioten Muskiz taldeari domekan, ligako azken partiduan.



ARTXIBOA

Joaneko partiduan Bergarak galdu egin zuen Portugaleten.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

19:00: Bayer-Agirrebeña. Pirulotarrak
20:00: Dedo Pafarru-Pirulotarrak. Agirrebe.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: A Ze Flaxa-Belengua. Antolaketa
10:30: Errotagain-Canalejas. A Ze Flaxa
16:00: Bayer-Torrekua. Ganbara
17:00: Artusamak-Ganbara. Torrekua

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Bedarreta-Argandolas. TNT
17:00: Bedarreta-TNT. Torrekua
18:00: Torrekua-Aterpe. Bedarreta

TENISA

Tenis finala jokatu da bihar Labegarietan

Jose Caballerok eta Ander Oñarederrak Tennis Txapelketako finala jokatu dute bihar, zapatua, Labegarietako pistan, 12:00etan. Aurretik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko, Roberto Irizar eta Juan Luis Etxaniz izango dira aurrez aurre, 10:00etan. 16 lagun izan dira lehia txapelketan.

ESKIA

Aste Santuan eskiatzera joateko irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak Aste Santuan, apirilaren 18tik 26ra, Alpeetara eski irteera egingo du. Hain zuzen ere, Cerviniara joango dira eskiatzera Pol-Polekoak. Izenematea Pol-Poleko bulegoan egin daiteke. Plaza mugatuak dira. Interesatuak 943 76 48 51 telefono zenbakian jaso ditzakete argibideak.

FUTBOLA

Lau partidu jokatu dira Ipintzan aste bukaeran

Lau futbol partidu jokatu dira Ipintzan: zapatuan Bergara-Hernani (bigarren mailako kadetak, 10:00etan), Bergara-Allerru (infantil maila, 11:00etan) eta Bergara-Amara Berri (bigarren mailako gazteak, 16:30ean); domekan bigarren erregional mailako Bergarak Aretxabaleta hartuko du, 17:30ean.

AKORT

Ipin ezazu zure ARGAZKIA PUZZLE BATEAN

BERRIAI

Izan zaitetz orijinala:
ZURE OPARIAK LATA BARRUAN

Enpresako OPARIAK egiteko, imajina dezakezun guztia:
boligrafoak,
agendak, aterkiak,
ordenagailuendako
alfonbratxo
pertsonalizatuak...

Fotokopiak KOLORETAN

Era guztietako kamisetak eta kirol-jertseak

Mugertza 7, BERGARA. Tel.: 943 76 50 39

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JOXAN ARRANDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29



Egunkaria-ren itxierak hainbat mobilizazio eta ekimen eragin ditu herrian.

ARTXIBOA

Bihar, zapatua, izango da eta kontzertuak eta mahai-ingurua egongo dira, besteak beste

Gaztetxeak 'Egunkaria'-ren aldeko eguna antolatu du

MONIKA BELASTEGI

Gaztetxeak eta Txapa Irratiak antolatu dute *Egunkaria*-ren aldeko eguna. Bihar, zapatua, izango da, eta arratsaldean eta gauean egongo dira ekitaldiak, gaztetxean eta San Martin plazan. Besteak beste, sagardoa eta txorizoa egongo dira San Martin plazan.

Gaztetxeke eta Txapa Irratiko kideek bat egin nahi izan dute *Egunkaria*-rekin, eta horretarako *Egunkaria*-ren aldeko eguna antolatu dute. Bihar, zapatua, izango da eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Batetik, Txapa Irratiko kideek irratsaio berezia egingo dute San Martin plazan, 18:30etik 20:00etara bitartean. Irratsaioak hiru atal izango ditu: batean, Txapan entzun daitezkeen irratsaioak aurkeztuko dituzte; bestean, euskararen gainean lan egiten duten hainbat taldeetako ordezkariak elkarrizketatuko dituzte; eta, hirugarrenean, *Egunkaria*-ren itxieraren gaineko mahai-inguru irekia egongo da. Bertara *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile bat eta beste komunikabide batzuetako kazetariak gonbidatu dituzte, besteak beste. Mahai-inguru hori 18:30etik 20:00etara bitartean izango da.

Irratsaioa irauten duen bitartean, *Egunkaria*-ko materiala saltzeko mahai jarriko dute San Martin plazan, baita *Txapa Txiringittoa* ere. Hantxe sagardoa eta txorizoa pintxoak egongo dira salgai eta jasotako dirua *Egunkaria*-rendako bideratuko dute antolatzailerak.

GAUEAN HIRU TALDEREN EMANALDIA GAZTETXEAN

Arratsaldeko ekitaldien ondoren, gauean kontzertuak egongo dira gaztetxean. 22:30ean hasiko dira, eta herriko hiru taldek hartuko dute parte: The Elebators, Frigel Rock eta Dixie 900 taldeek, hain justu ere.

Domekan iritsiko da Korrika 13, eta ekitaldi ugari daude giroa berotzeko

MONIKA BELASTEGI

Domekan 15:43 aldera helduko da Korrika gurera. Hortaz, korrika egiteko arropa eta zapatilak prestatzeko ordua iritsi da. Hamabost kilometro dagozkio Bergarari eta hementzi taldek erosi dute zatia domekan euskararen alde korrika egiteko.

Osintxun hasi eta Elorregirainoko zatia dagokio Bergarari. Tartean, baina, Antzuolako herriak badu zatitxo bat, hamahirugarren aldia handik pasatu ez eta ez dutelako korrika egin barik geratu nahi.

15:43 aldera sartuko da Osintxun, eta Elorregi bitartean banatu dituzten 15 kilometroak honako taldeek hartu dituzte: Osintxuko auzotarrek, eta Migel Altuna Institutuak, LABek eta ...ta segi aurrera plataformak, Xamat dantza taldeak, Jardunek, Udalak, Etxeratak, San Martin, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeek, Antzuolak, Labegaraie-tako auzotarrek, Akulu AEKk, Goizperrek, Lokatzak eta EHEK eta gaztetxeak.

HERRIAN BARRENA EGINO DUEN IBILBIDEA

Herrian barrena egingo duen ibilbidea hauxe da: Osintxutik datorrela, Amillaga aldera hartuko du, handik igerilekuetarantz abiatuko da eta hilerri paretik pasatu ondoren Santa Marina eliza ostetik pilotalekurantz hartuko du. Handik Kruz Gallastegi kalean gora egingo du eta gero Barrenkaletik San Martin plazara iri-

tsiko da, 16:27 aldera. Bidekurutzetatik jarraituko du, Espoliorantz, eta Espoloia gurutzatu ondoren San Antoniorantz hartuko du.

DOMEKAN, EKITALDI UGARI

Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldi ugari egongo dira goizean eta arratsaldean. 11:30ean kalejira egingo du Udala Musika Bandak eta 12:30ean, kontzertua, Udala Pilotalekuan. 13:00etan herri bazkaria egongo da San Martin plazan, eguraldi ona egiten badu, eta txarra egiten badu Seminarioko jolasleku estalian.

Horrez gainera, Auskalo taldeak umeendako ikuskizuna eskaini eta lantegiak egingo ditu, 17:30ean; eguraldi onarekin, San Martin plazan; eta euria egiten badu, Udala Pilotalekuan.

'Bertso musikatuak' Pol-Polen datorren egubakoitzean

MONIKA BELASTEGI


Kultur Errotaren bitartez eta Bertso Eskolaren laguntzarekin, *Bertso musikatuak* ikuskizuna antolatu du Jardun elkarteak. Emanaldia hilaren 11n izango da, 22:30ean, Pol-Pol tabernan.

Ikuskizunak bertsoak ditu oinarri eta musika, diapositibak, esketxak eta dantzak, berriz, lagun-garri. Ekitaldian bertsoaritzaren ondaretik hautatutako bertso sorta esanguratsuenetakoak entzuteko aukera egongo da. Bertso ezagunak dira gehienak, eta doinuaren garrantzia azpima-

rratuz, era atsegin eta didaktikoan jasoko ditu ekitaldira hurbiltzen denak.

Bertsoei ahotsa Arantxa Cruzek eta Joseba Ramirezek jarriko diete. Horrekin batera, pianoan Xabier Zabalak jardungo da eta gitarran Joseba Ramirezek.

Bertsolari ezagunen hitz musikatuak egingo dituzte hamahiru guztira; esate baterako, Xabier Amurizak idatzi eta Imanolek musikaturako *Mendigorra*; Jon Sarasuak idatzi eta Oskorrik musikaturako *Euskaldun berriaren balada*; Txirritaren *Oraingo neskatzen janzkera* eta Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean*.



Bertsolari ezagunen bertso ezagunak entzuteko aukera egongo da Pol-Polen.

KULTURAPILULAK

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, 12:30ean, Korrikako giroa alaitzeko

Udal Pilotalekuan egingo du kontzertua Udal Musika Bandak, eta bost lan eskainiko ditu: Alfredo Glez. Chirlaqueren *Udaberrin txoria* martxa; J. Offenbach-en *La belle Hélén* obertura; A. W. Keiseren *En un mercado persa* intermezzo; J. de Haan-en *Rossini* eta *Gero bat gaurdanik* Korrika 13ren doinu ofiziala.

Glu-Glu Produkzioak konpainiaren 'Urak dakarrena glu-glu...', gaur, Zabalotegin

Glu Glu Produkzioak konpainiak sortutako bakarrizketa da *Urak dakarrena, glu-glu...* Esther Uria da aktorea, eta eguneroko arazo txikiak bizitzak dituen gauza zoragarriak erakusten dituzten *stand up comedy* erako antzezlan horren oinarria. Gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Zabalotegi aretoan.

Angiolillo taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan

Angiolillo taldea berriz ikusi eta entzuteko aukera izango du gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan. Inigo, Esteban, Torretxo eta Mutxi berriz batuko dira eta kontzertua egingo dute 22:30ean. Emanaldi berean Goiko Rock herriko taldea ikusteko aukera ere egongo da. Ekitaldia ...ta segi aurrera herri plataformak antolatuko ditu.



2003ko apirilaren 4a

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 5. alia

IEPA LAGUNOK!

Oinguan lagun berri bat aurkeztu bihar dotsuet. Bere izena Pottoka da eta gaurtik aurrera zuen erantzunak berak zuzenduko ditu.

“Kaixo danoi, nere izena Pottoka da eta San Martzial inguruan bizi naiz. Nere asmua Bergarako euskeria gero eta modu egokixaguan erabiltzia da eta horregaitik nere lana zuen erantzun orrixak zuzentzia izango da. Ondo egiñez gero, erregalu polittak irabazteko aukeria izango dozuela badakizuenez, ondo egin ariketak!!!”



A! Eta akordau eskoletan banatuko dotsuela ariketen erantzunak jarri eta sari polit batzuk lortzeko orrixak. Horrek orrixok eskolan bertan entregatu bihar dittuzue.

IGARKIZUNAK

Pelota guztiak aurpegixan jotzen nabe; baiña nik miñik ez, harrizkua naizenez.

ERANTZUNA: frontoia

HOBETZEKUAK

1. JO/EMON ADITZAREN ERABILLERIA

Jo aditza beti Nor-Nork aditz laguntzailliekin (nau, zaittut, ...) juango da.

- *“Mikelek jo dost”.*

Mikelek jo nau.

Esaldixan kolpia adierazten dogunian, ezin dogu jo aditza erabilli; bere orde z emon erabilliko dogu.

- *“Ukabilkadia jo dost”.*

Ukabilkadia emon dost.



2. LEXIKUA

Gaztelaniaren eragiñez: txintxoia, moratoia edo puñetazua bezalako berba asko erabiltzen dittugu. Holako berbak euskaraz be badittugula kontuan hartuta (haundittua, beltzunia, ukabilkadia...), zergaittik ez erabilli euskarazkoak?



3. -KO ETA -KADA EGITTURAK

-ko atzizkiak kolpia nun izan dan adierazten dau.

-kada atzizkiak kolpia zerekin emon dan adierazten dau.

Bi kasuetan emon aditzarekin lagunduta joango da.

- *“Burukua jo dost”.* Burukua emon dost.



KOMIKIXA



BARRAKETAN

Hau da hau marka! Joxe eta Serapia bi barrakero dira euren barrakak aurrez aurre dittuenak. Jenderik ez dabillenan euren artian jolasian jarduten dabe jaurtitzailerik onena zein dan jakituko. Horretarako, apal batzuetan botilla batzuk jartzen dittue, eta pelotekin batak bestiar botillok botatzen ahalegintzen dira.

Hiru klasetako botillak jartzen dittue:

- botilla txikixak (kas botillak),
- botilla ertainak (ur botillak) eta
- botilla haundixa (2 litroko coca-cola botillia).

Horrela, jokua hasiko da eta botillak lehenengo botatzen dittuena izango da irabazlia.


Jokuak arau batzuk edukiko ditu:

- Botillak laukixetan margotuko dira.
- Apalak 6 zutabe (A, B, D, E, F, G) eta 6 lerro (1, 2, 3, 4, 5, 6) edukiko ditu.
- Pelotak jaurtitzerakuan, jaurtitzailiak honela esango dau pelotia nora botatzen daben: F4
- Botillia jo ezkerre zein botilla jo dan esan biharko da, hau da: "coca-cola botillia jo dozu". Ez bada botillarik jotzen "kale" esan biharko da.

Jarriko diren botillak:

- Botilla txikixak, kuadro bat hartzen dabenak: hiru.
- Botilla ertainak, bi koadro hartzen dabenak: bi.
- Botilla haundixak, hiru koadro hartzen dabenak: bat.

Hasi dadilla jokua!!



ASTOTXOAREN KANTA

Etxean, aittak eta amak ez baldin badakixe "Astotxoaren kanta" erakutsi egixezu zuk.


Astotxoa, gure astotxoa
astotxoak arrantzarik ez
buruan joko zaittu
buruan joko zaittu

Astotxoa, gure astotxoa
astotxoak arrantzarik ez
sorbaldan joko zaittu
sorbaldan joko zaittu

Astotxoa, gure astotxoa
astotxoak arrantzarik ez
besuan joko zaittu
besuan joko zaittu

Astotxoa, gure astotxoa
astotxoak arrantzarik ez
belaunian joko zaittu
belaunian joko zaittu

...



BOLO JOKUA

Pelota bat erabilliz, 3 metrotara daren neurri ezberdiñeko objektuak jo biharko dira.

Pelotia jaurti aurretik, ze objektu joko dan esango da (botillia joko dot).

Gauza txikixak puntuaziño haundixagua edukiko dabe (liburu batek puntu bat eta borragoma batek 3 puntu, adibidez).

25 puntu lortzia izango da helburua.

ALDAERIA:

Pelotia erabilli biharrian kanikak erabilliko dira. Kasu honetan, dana berdin egingo da, jaurtitzen dan tokittik trastiak daren tokira bittarteko distantzia izan ezik.

Tarte hori gutxienez metro batekua izango da.

LETRA-ZOPA

Billatu hurrengo hitzak ondorengo letra zopan:

- Dotsat
- Nekatuta
- Ukabilkadia
- Emon
- Zaittu
- Urratua
- Bihurritua
- Dot
- Jo
- Dotsu
- Burukua
- Kantsauta

A	R	I	S	T	O	N	B	O	L	I	A
S	E	R	D	D	I	K	I	L	O	U	P
I	R	T	A	O	N	K	H	L	M	K	L
K	K	A	N	T	S	A	U	T	A	A	E
U	F	O	L	S	E	Z	R	I	M	B	E
T	B	B	E	U	F	U	R	A	Z	I	D
E	U	D	M	I	I	R	I	N	A	L	O
R	R	E	O	G	R	R	T	E	I	K	S
R	U	D	N	E	K	A	T	U	T	A	A
O	K	I	N	D	E	T	U	N	T	D	G
M	U	R	J	O	T	U	A	A	U	I	A
A	A	D	O	T	S	A	T	R	E	A	R

Ondoren, hutsunietan sartu letra zopan aurkittu biharreko hitzak:

1. Sartu zaittez lasai, hemen iñork ez _____ joko eta.
2. Iker, zeñek emon _____ belarrondokua?
3. Sasi artera jausi nintzan eta egundoko _____ egin neban.
4. Argi gutxi zeguanez, ez neban zulua ikusi eta sekulako _____ egin neban.
5. Pelotan jokatzan ibilli danez, orain oso _____ dago.
6. Ez naiz zinemara juango, _____ nago eta.
7. Begiondoko hau, atzoko burrukan hartutako _____ -na da.
8. Ez zan makurtu eta egundoko _____ hartu zeban ateburuakin.
9. Kasurik egitten ez badostazu, zaplastekua _____ -go dotsut.
10. Zeñek _____ dau Mikel?
11. Nahibarik zure jostailua hankarekin jo _____.
12. Auzokuari kaskarrekoa emon _____ adarra jotzen zebilelako.



ANDER TELLERIA
Mariaren Lagundia
Ikastola

NERE GOMENDIXUA

SORGINAK
Roald Dahl
Itzultzailea:
Joan Mari Irigoien.
Erein argitaletxea



Ez dotsuet kontauko zeren gainian dan, baiña liburu hunkigarri honek zuen gorputza sorpresaz, beldurrez, irribarrez eta imajinau eta amestu be ezin leizkien abenturaz beteko dabela ziurtatzen dotsuet. Eta hori gutxi iruditzen bajaran, badago liburuan oiñarritutako pelikulia, baita gomendagarriak diren idazle famatu honen beste liburu asko be.

INKESTIA



Ondo dago norbait jotzia?



Nerea González

Tira... Ez jotzia da onena, baiña oso gaiztuak direnekin batzuetan eziñezkua da aguantatzia. Defenditzeko jotzia ez dot gaizki ikusten. Hala ta be, hobe bakian.



Jon Ander Roman

Gaizki ikusten dot, norbait jotziak miña eta negarra ekartzen dittualako. Adarra jotzen dostenian ni be kolpeka hasten naiz, baiña nahixago dot istillurik ez izatia.



Josu Azkarate

Berba egiñaz konpontzen dira gauzak; horixe da onena, norbait jotzen hastia baiño gehixago. Jotzen banabe nik be jo egitten dot, baiña oso gutxitan izaten da.



Olatz Urrutia

Bateren batek merezi badau, ez dot gaizki ikusten jotzia. Hala ta be, nere iritiz, hobe da haserriak lagunartian konpontzia, barkamena eskatuta eta berba egindda.



ipuiña

MAKILAKIXKI

Oraingo honetan ez dozue ipuiña osorik edukiko. Orainguan, ipuiña erdizka egongo da eta zuen betebiharra ipuiña zuen erara osatzia izango da. Eten puntuak daren tokixan agertu biharko da zuek asmatuko zatixa. Ia zelako ipuin sortzailliak zareten!

Munduan asko bezala, mendiko etxe batian, gizon zahar bat bizi zan. Gizon harek hiru seme zittuan: Aritz, Mikel eta Beñat. Aritz morroi sartu zan etxe batian. Gogor egiten zeban lan. Goizian goiz jaiki eta ardixekin mendira juaten zan. Egun osuan artzain ibilli ondoren, gauerako etxera bueltatzen zan. Oso artzain ona zan Aritz. Nagusixa pozik zeguan berarekin. Eta urtia pasa ondoren, asto bat emon zotsan. Baiña ez zan asto arrunt bat. Hari "egiñik urria" esanez gero, urria egitten zeban. Etxian erakusteko amorratzen zeguan baiña etxera bidia luzia zanez, ostatu batian lo egin zeban eta...



...



Handik urte batzuetara bigarren semia be, Mikel, morroi jua zan. Honek be gogor lan egin bihar izan zeban. Goizian goiz jaiki eta mendira juaten zan egurretara. Egun osua mendixan pasa ondoren, gauerako etortzen zan etxera.

Oso mutil zintzua zan Mikel. Nagusixa oso pozik zeguan berarekin eta horregaittik, urtia pasa ondoren, mahai bat emon zotsan. Oso mahai berezixa zan haura. "egiñik bazkarixa" esanez gero, mahaixak bazkarixa edo afarixa prestatzen zeban. Hau be desiatzen zeguan bere oparixa etxian erakusteko baiña, bidia luzia zanez, anaiaren ostatu berian lo egin zeban eta ...


...

Eta, azkenik, Beñat be etxetik kanpora jua zan lanera. Basarri batian morroi jarri zan. Etxe hartan lan asko egitten zeban Beñatek. Goizian goiz jaikitzen zan eta behixak larrera etaratzen zittuen. Gero

behiendako bedarra moztu eta batu egitten zeban zelaixan. Egun osua lanian jardun ondoren, gabian etxera bueltatzen zan. Nagusixa oso pozik zeguan Beñatekin. Horregaittik, urtebete pasa ondoren, makilla bat erregalau zotsan. Makilla haren aurrian

"makilakixki" esanez gero, mobitzen hasten zan eta inguruan zeren pertsona danak jotzen. Beñat be etxekuei oparixa erakusteko amorratzen zeguan baiña bidia luzia zanez, gabian bere anaien ostatu berian geldittu zan lotan eta...

...



Hurrengo goizian, aurpegixa garbittu eta gosaldu ondoren, astua, mahaixa eta makillia hartu zittuan Beñatek. Oso pozik jua zan etxera astua aurretik zebala.

E, TXO!

GUREGAIK/ IKAS-BIDAIK

Ipintzakoak Europa ezagutzera doaz

AINTZANE IRIZAR

Dagoeneko mailetan prestatzen jardungo dute Ipintzako ikasleek. Datorren martitzenean, apirilaren 8an, abiatuko dira Paris aldera, eta astebeteko bidaia egingo dute Europako hainbat herrialdetan zehar.

Garai bateko institutuko ikasle en ohiturari jarraituz, Europa aldera joango dira aurten ere batxilergoko ikasleak. 45 bat ikasle eta lauzpabost irakasle joango dira ikas-bidaiara.

Astebete egingo dute ikasle horiek Frantzia, Belgika eta Holanda.

Martitzenean Parisera abiatuko dira, eta bi egun egingo dituzte hantxe. Paris hiria ezagutuko dute egun baten eta hurrengo eguna Paris-Disneyland-en pasatuko dute.

te hantxe. Paris hiria ezagutuko dute egun baten eta hurrengo eguna Paris-Disneyland-en pasatuko dute.

Paristik Holandara joango dira, eta lau egun pasatuko dituzte hantxe; itzuleran, berriz, Belgikan geldialdia egingo dute; Bruselan egun bat pasatuko dute.

BIDAIA AUTOFINANZATU DUTE

Ikas-bidaiarako dirua ateratzeko hainbat ekimen egin dituzte: Gabonetan loteria, polboroiak eta bonboiak saldu zituzten; kantuan irten ziren; kamisetak saldu dituzte... Azkenean, ikas-bidaiako gastu guztiak ordaindu ahal izan dituzte lortutako diruarekin, eta ikasle bakoitzari 50 euro geratu zaizkio, gainera.

OSASUNAREN GAI NEKO JARDUNALDIK

Injuvek antolatuta, *Bizi ohitura osasungarriak gazteengan* izenburupean jardunaldiak egingo dituzte maiatzaren 6an eta 7an Iruñean.

Jardunaldi horietan parte hartu nahi izanez gero, apirilaren 21a baino lehen eman beharko duzue izena. Edozein gaztek parte har dezake, edo gazteekin lan egiten duen edozeinek.

Honako webgunean izena emateko orria eta jardunaldien gaineko informazio zabalagoa topatuko duzue: www.mtas.es/injuve.

IKASLE ABERTZALEEN DEIALDIA

Ikasle Abertzaleak taldeak mobilizazio astea deitu du apirilaren 8tik 10era bitartean, *Euskal ikasleon eskubideak ez daude salgai* lelopean.

Apirilaren 9an, esaterako, ikastetxeetan eskola alternatiboak antolatzeko deialdia egin dute, eta hilaren 10erako mendi martzak antolatu dituzte.

GAZTEMANIAK LEHIAKETARAKO DEIALDIA

Gogora ezazue apirilaren 30ean bukatuko dela VII. Gaztemaniak Maketa Lehiaketan lanak aurkezteko epea.

Aurkezten diren talde guztien artean hamabost aukeratu dituzte epaimahaiak, eta disko baten jasoko dituzte talde horien lanak. Lehiaketan parte hartzen duten taldeen informazioa eta kantu bana jasoko dituzte Musika Gida webgunean (www.gaztemaniak.net/musikagida).

Informazio zabalagoa topatuko duzue www.gipuzkoa.net webgunean.



Egun bat pasatuko dute Parisen, hiria ezagutzen.

ARTIBOIA

LOTSABARIK/ Maitane Azkarate-Askasua

“Gazteok jai giroan ligatzen dugu”

AINTZANE IRIZAR

Puntualtasun falta ei da Maitaneren akatsetako bat; elkarrizketarako jarritako hitzordura, baina, esandako orduan etorri zen. Oso gustoko du musika Maitanek, eta oso bertsozalea da.

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gazteendako ekitaldi gehiago antolatuko nituzke.

• Zure karpeta zer irudi edo pegatina daukazu?

Ume txiki bat eta txakur bat azaltzen diren pegatina bat.

• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Hotel Glamour; Hitzetik hortzera eta Sorginen laratza, berriz, asko gustatzen zaizkit.

• Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?

Hotel Glamour-ko Pocholo; gustukoena, Mikel Urdangarin.

• Zerk amorratzen zaitu?

Injustiziak; batez ere, gure herriarekin eta hizkuntzarekin egiten dituzten injustiziek.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Lagun egiteko gertu egotea, nitaz arduratzea...

• Zer ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Lagun onak edukitzeari eta pozik bizi izateari, gustuko dudana egiteari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Alaia naiz; akatsa, berriz, puntualtasun falta.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Nork bere taktikak edukiko ditu, baina gehienok jai giroan ligatzen dugu, parrandan.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?

Umila, bihotz onekoa, alaia, beltzarana eta begi argiekin.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Ahizparekin, Iparraldera.


• Etorkizunerako amets bat?

Nire ametsak betetzea: neure buruarekin, ingurukoekin eta egiten dudanarekin ondo sentitzea.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Irakasle ikasketak • ZALETASUNAK: Mendia, musika eta bertsoak • FILM BAT: 'Mi vida sin mí' • LIBURU BAT: 'Kutsidazu bidea, Ixabel', Joxean Sagastizabalena • MUSIKA TALDEA: Mikel Urdangarin • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARREN ETXETIK

Hamalau lagun bizkarra zaintzeko ikastaroan



E.M.



E.M.

Ikastaroko partaideek bizkarrarekin zerikusia duen gairen bat jorratuko dute astelehenero.

Maiatzaren 26ra arteko eskoletan teoria eta praktika tartekatuko dituzte.

EDU MENDIBIL

Hamalau lagunek -10 emakume eta lau gizon- dihardute astelehenean San Joxepen abian jarritako bizkarra zaintzen ikasteko ikastaroan. Amagoia Muruamendiaraz mediku gerontologia

eta Laura Da Quinta erizainaren eskutik, maiatzaren 26ra arte astelehenero izango dituzte eskolak. Muruamendiarazek adierazitakoaren arabera, eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun jarra okerrak zuzentzea da ikastaroaren helburu nagusia: "Inoiz ez da berandu horretarako. Egune-


roko zereginetan bizkarra zelan erabiltzen dugun aztertuko dugun eta, hortik abiatuta, bizkarra zaintzeko ariketak egingo ditugu. Laneko bajen portzentaje handi bat bizkarreko arazoengatik, lumbalgia, batez ere, izaten dira gaur egun, eta badira bizkarreko giarreak indartzeko ariketa apro-

posak. Hortaz, teoria eta praktika tartekatuko ditugu".

HITZALDIA EGUAZTENEAN

Astelehenero gai bat izango dute aztergai: lumbalgia, lepaornoen sindromea edo ergonomia jorratuko dituzte maiatzera bitartean. Muruamendiaraz zera azpi-

marratu du: "Erretiratuen eta emakumeen elkarrekin gai hau landu izan dugu eta erantzuna oso ona izan da. Europa mailan bizkarren eskolak sortzen dihardute, txikitatik bizkarra zaintzen ikas dezagun. Izan ere, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio bizkarra ondo zaintzeari".

**Esperientzia Gelako ikastaroak**

Bergarako UNED ikastetxeak eta San Joxepe abian jarritako Esperientzia Gelaren hirugarren faseko ikastaroak maiatzaren 8tik ekainaren 12ra izango dira. Besteak beste, informatika, tai-chi-a, musika eta pintura jorratuko dituzte. Eskolak UNEDen bertan izango dira, egunero, 17:00etatik 20:00etara. Esperientzia Gelako ikastaroak urtarrilaren 16an jarri zituzten abian, eta, antolatzailen esanetan, harrera ezin hobea izan dute herriko erretiratuen artean.

LABUR**Mekolaldera ibilaldia datorren eguaztenean**

Udaberriko giroa eta sasoi honetan beranduago iluntzen duela kontuan izanik, hileroko ibilaldiak egingo dituzte San Joxepeko erretiratuek. Ibilbide errazak eta edozeinek egiteko modukoak prestatu dituzte, pasioarekin gozatzeko asmoz. Eguaztenean, hilaren 9an, San Joxepe elkartetik 16:00etan irtengo dira eta Mekolalderaino joango dira paseatzeko. Bueltan, Agorro-sinen hainbat buelta emango dituzte. Argibide gehiago, 943 76 30 09 telefono zenbakian.



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

•
Pintura industrial

•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

ETXEBERRIA


ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



PERUKO PAITA HERRIKO ORDEZKARIAK BISITARI

Peruko Paita herriko ordezkariak bisitari izan genituen martitzenean Bergaran. Bartzelonako Kongresu baten parte hartu ondoren, Vitalino Agurto Paitako alkateordea eta Antxon Álvarez Azkarate Kooperazio eta Garapenerako Bulegoko zuzendaria Euskal Herrian egon dira. Besteak beste, Gasteizko alkate Alfonso Alonsoekin batu dira, eta Álvarez Azkaratek euskal jatorria duenez (ama gaztetan Bergaran bizi izan zen eta aita donostiarra zuen), Victoriano Gallastegi alkateari Paitako egoeraren berri eman eta hezkuntza eta beste hainbat arlo garatzeko laguntza eskatu zioten. Perutarrek zilarrez egindako zaldi bat opari egin zioten alkateari eta hark Bergarako plaka bat eman zien. Argazkian, Agurto, Gallastegi eta Álvarez.



OLIVER!-EN ARRAKASTA OSPATZEN

Oliver! ikuskizunean parte hartu izan dutenen bazkaria izan zen Altzasu elkartearen martxoaren 22an. Ikuskizunak izan duen harrera bikaina ospatzeko (urtarrilean Bilboko Euskalduna jauregian ere arrakasta lortu zuten) 126 lagun elkartu ziren Altzasun. Primeran bazkaldu ondoren Valen Moñuxi orogarri bat eman zioten Orfeoiko kideek. Hainbat ikuskizunetan egindako lanagatik, Valenek *Oliver!*-en egiten duen *Fagin* pertsonaiaren kapelua eta bastoia jaso zituen orogarri gisa.

LETURIA HARATEGIA SARITU DUTE

Bergarako Leturia harategia saritu zuten Donostiako Miramar jauregian, Gipuzkoako Merkataritza Federazioak domekan egindako urteko batzar orokorraren ostean. 50 urtetik gora lanean diharduten 12 denda saritu zituzten ekitaldian. Jose Domingo Leturiak ireki zuen Leturia harategia Bergaran, 1927an. Orduetik hona hiru belaunaldi izan dira harategiaren ardura eraman dutenak. Juan Mari Leturia eta Jesusita Berasategi senar-emazteak (argazkian) erretiratu zirenetik, euren seme Jon dugu harategiko nagusia. Zorionak!!!



GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74



ANTZUOLA
Karmen Irizar
4an, urteak. Zorionak
pitxin! Etxekoak; bereziki,
Onintza. Aurrera Bolie!



BERGARA
Julen Murgiondo
Apirilaren 4an, 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta arreba Irati.



BERGARA
Janire González
Apirilaren 2an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Ane.



BERGARA
Ane Martin
Apirilaren 7an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Janire.



BERGARA
Xabi Azpiazu
Apirilaren 5ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Loli Heis
Apirilaren 5ean, 32 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Leire Ugalde
Apirilaren 7an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Leire Jiménez
Apirilaren 6an, 21 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ainhoa.



BERGARA
Mikel Alberdi
Apirilaren 7an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Julen Marquez
Apirilaren 2an, 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Yanire.



BERGARA
Iñigo San Jose
Apirilaren 7an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Hodei Pérez
Apirilaren 6an, 8 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
arreba Deiane.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62


ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

OGIZUN

koop. elk.

okindegia




San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein plazatan dago ezkerreko farola eta zein kaletan eskumakoa?

GALDEDEBALDE

1.

Udalbatzak nor izendatu zuen herriko seme asteleheneko osoko bilkuran?

- A/ Serafin Esnaola.
- B/ Justo Garate.
- C/ Marcial Agirre.

2.

Manu Muniategi margolariak erakusketa zabaldu berri du Santiagon. Zein galeriatan?

- A/ MaruxArte.
- B/ Luxor.
- C/ Trinta.

3.

Zein izan zen Bergarako lehena Gorkako txirriindulari igoeran?

- A/ Jokin Ormaetxea.
- B/ Ander Agirre.
- C/ Iñaki Lejarreta.

PINTORE BERGARARRAK GAUR

Manu Muniategi

EDU MENDIBIL

Manu Muniategiandikoetxeak (Bergara, 1966) erakusketa zabaldu zuen etzi Santiagon (Coruña), Trinta galerian. Ateen gainean egindako kaxa metafisikoak (margolan handiena 3,5x3 metrokoa da), hiru eskultura handi, egurrezko eta aluminiozko pieza txiki batzuk eta hamar marrazki eraman ditu. Orain Madrilgo Minimo galeriarekin dihardu Manuk: "Otsailean erakusketa egin nuen han, eta ARCON ere izan nintzen. Margolan handi bat eta eskultura txiki bat eskegi nituen ARCON, eta biak saldu". Orain dela urtebete eskulturak egiten hasi zen: "Burdina, aluminioa edo egurra erabiltzen dut, eta gainetik pintatzen ditut, margolanak balira bezala".

Aurtengoa nahiko urte ona duela diosku. Maiatzean Valentzian eta irailean Bilboko Recalde galerian egingo ditu erakusketak. Kritikaren gainean zera dio: "Onena norberaren gainean berba egitea da, ondo edo gaizki. Eta mundu honetan aurrera egiteko zorteaz gain, inkontziente puntu bat ere beharrezkoa da. Bolada onak laster amaitzen dira, eta iraupen-lasterkaria izan behar da".

"Mundu honetan aurrera egiteko zortea eta inkontziente puntu bat beharrezkoak dira"



ARTXIBOA



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MADDI IÑARRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maddi! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Borjako San Frantzisko / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Orlando tomate frijitua

410 g + %20 doan

0,48€

80 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a / 153. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

'Ondo esan beharko' antzezlanana izango dugu gaur, egubakoitza, eskolan

AINTZANE IRIZAR

Ramon Agirrek eta Joxerra Senperenak *Ondo esan beharko* antzezlanana eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:00etan. Herri Ikastetxeko aretoan izango da emanaldia. Berbak eta musika ditu oinarrian Ramon Agirre aktoreak idatzitako ikuskizun horrek.

Antzoki bihurtuko dute gaur gauean Herri Ikastetxeko areto nagusia, *Ondo esan beharko* antzezlanana eskaintzeko. 22:00etan jarri dute antzerki ikuskizunerrako hitzordua.

Ramon Agirre euskal aktore ezagunak asmatu eta idatzitako lana dugu gaur herriko eskolan taularatuko dutena, gero, Joxerra Senperenarekin batera musikatutakoa.

Arrakastaren eta porrotaren arteko harremanaren gaineko istorioa da Agirrek idatzitako lan hori. *Ondo esan beharko* izenburua bera ere arrakastaz eta porrotaz mintzo da; bai arrakasta, bai porrota oso erlatiboak direla esan nahi izan du autoreak izenburuarekin eta antzezlanarekin berarekin.

ANTZEZLAN MUSIKATUA

Denetik du *Ondo esan beharko* antzezlanak, Ramon Agirreraren hitzetan: "Bluesa, koplazaha-



ARTXIBOA

Arrakastaren eta porrotaren arteko harremanaren gaineko istorioa taularatuko dute gaur, egubakoitza, 22:00etan.

rrak, pasadizo sasibiografikoak, rock-and-rola, katxondeoa..." Umorea da osagairik garrantzitsuena, baina musikak ere garrantzia handia hartzen du.

Agirreraren bakarriketak abestiekin tartekatuz ematen

dira; sei abesti entzun ahal izango ditugu emanaldian. Ramon Agirrek idatzitako abestiak dira, eta horietako hiruren konposizioa ere Agirrerarenak dira; gainerako hirurak, berriz, Joxerra Senperenak konposatutakoak dira.

Bestalde, ikuskizunean bertan ere parte hartzen du Joxerra Senperena musikariak: Ramon Agirrek berba egiten duen bitartean pianoa jotzen du Joxerrak, eta Agirrek abesten dituen kantuei musika jartzen die.

KORRIKA13

Antzuolarrok Bergaran parte hartuko dugu Korrikan, San Antoniotik Ozaetaraino

AINTZANE IRIZAR

Aurtengoan Korrika ez da Antzuolatik pasatuko, baina bai Bergararik. Horregatik, antzuolarrok Bergaran parte hartu ahal izango dugu Korrika 13 honetan. San Antoniotik bidegurutzean jarri digute hitzordua Korrikakoek, 16:33an.

Antzuolatik pasatuko ez den arren, antzuolarrok ere izango dugu Korrika 13n parte hartzeko aukera. Apirilaren 6an, domekan, iritsiko da Korrika Bergarara. Antzuolarrok 16:33rako gertu egon beharko dugu San Antoniotik bidegurutzean. Antzuolako Udalak kilometroa erosi du, San Antoniotik Angiozarko bidegurutzeraino. Udalez gainera, herri-

ko hainbat enpresak ere diruz lagundu dute Korrikaren hamahirugarren aldian.

Gaur, egubakoitza, bestalde, eskolako neska-mutikok Korrika Txikia egingo dute, Errekal-den hasita.

KORRIKA KULTURALA HERRIAN

Korrikalariak ez dira Antzuolara iritsiko, baina Korrika Kultu-

rala bai. Apirilaren 11rako, hain zuzen ere, ekitaldi bat antolatu dute. Kike Amonarriz soziologoa berbaldia egingo du datorren aste egubakoitzean udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. *Eske hau superguaya da* izenburupean egingo du berbaldia, eta gaur egun gazteek erabiltzen duten hizkeraren gainean jardungo du Kike Amonarrizek.

LABUR

Gerbasioaren bazkarirako txartelak salgai

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak maiatzaren 11n (domeka) emango dio zilarrezko domina Gerbasio Legorbururi.

Egun horretarako hainbat ekitaldi antolatzen dihardute herriko txistulariek; besteak beste, herri bazkaria egingo dute Udal Pilotalekuan.

Bazkari horretarako txartelak oraingo aste bukaeran jarriko dituzte salgai, Gorosti eta Aitz-Garbi tabernetan, hain zuzen ere.

Patxiko Txerren Ipuin Sariketarako deialdia

Herri Ikastetxeko lehenengo mailatik seigarrenera arteko neska-mutikok dute Patxiko Txerren Ipuingintzan parte hartzeko aukera.

Datorren egubakoitza, apirilak 11, izango da lanak aurkezteko azken eguna.

Epaimahaiak gela bakoitzeko ipuin bat aukeratu du eta liburu baten batuko ditu aukeratutako ipuin guztiak. Gainerako ipuinak, berriz, koaderno baten batuko dituzte. Gero liburutegian jarriko dituzte irakurgai ipuin horiek guztiak.

Maiatzaren 17an, San Isidroko ferian, banatuko dituzte sariak.

Domekan bukatuko da ezkontzen gaineko erakusketa

Aurreko asteburuan zabaldu zuten Olanaren etxean antzinarako ezkontzen gaineko argazki erakusketa, eta oraingo asteburuan ere egongo da ikusgai, zapatuan eta domekan: goizez, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 18:30etik 20:00etara.

Kutxa Fundazioarena da erakusketa, eta 1910etik 1940ra arteko ezkontzetako argazkiak daude ikusgai.

EUSKARA

Idatzien bilduma eskuragarri dago udaletxean, nahi duten herritarrendako

AINZANE IRIZAR

Debagoieneko euskara zerbitzuek orain dela aste batzuk aurkeztu zuten **Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak... idatzi bilduma**. Orain, udaletxeko bulegoan eskuragarri daude liburuxka horiek doan, nahi duten herritar guztiendako.

Interesa dutenek doan jaso ditzakete liburuxka horiek udaletxeko bulegoan bertan edo liburutegian.

Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek egin dute liburuxka hori. Eurek landutako testu sorta bat aurkituko dugu bertan.

ZELAN IDATZI JAKITEKO

Liburuxka horren helburua da egunero gertatzen diren egoeretan egin beharreko idatziak zelan egin argitzea; horretarako, hainbat adibide praktiko erabili dituzte euskara zerbitzuetako arduradunak.


Koaderno itxurakoa da liburuxka, eta oso praktikoa da, erraz erabiltzeko modukoa. Eguneroko

bizimoduan hainbat idatzi egin behar izaten ditugu; sarritan, ordea, ez dugu jakiten nondik hasi ere. Hain zuzen, liburuxka hori egoera horietarako prestatu dute. Era guztietako idatziak idazteko argibideak topatu ahal izango ditugu: gonbidapenak, erreklamazioak, agurrak, gutunak, etxe atariko komunitateen idatziak, doluminak emateko idatziak, udalarekiko harremanetan herritarrek erabili behar izaten dituzten idatziak... Argibide horiek guztiak, gainera, adibide praktikoekin batera jaso dituzte bilduman.

HERRITARRENDAKO LIBURUA

Ez da inolako profesionalendako egindako liburuxka, edozein herritarri zuzendutakoa baizik. Horregatik, herritar guztien eskuragarri jarri nahi izan dituzte liburuxkok. Udaletxeko bulegora edo herriko liburutegira jo dezakete interesa duten guztiak; hantxe jaso ditzakete idatzien bilduma horiek.

Debagoienean, guztira, 10.600 ale eman dituzte argitara. Antzuolan, berriz, bostehun bat ale banatuko dituzte.



Koaderno itxurakoa eta oso praktikoa da liburuxka.

HERRITARRENHITZA/Beñardo Kortabarria · Kazetaria

e-debagoiena, e-adar jotzea

Bailara informazioaren gizartearen puntaren puntan jarri behar ei zuten, informazioaren autopistaren proiektu pilotuan inor baino bizkorrago eta erosoago ibili behar ei ginen... eta horren berri emateko, duela urtebete inguru Gatzaga txiki eta ederrean izan ziren hainbat sailburu, diputatu, errektore, alkate, enpresari... Mikrofono aurrean jarri eta kable bidez bailaran eraikiko zuten sareari buruzko hitz politikak baino ez zituzten izan: bailara izaera, kohesioa, toki urrunenera iristea, aukeren berdintasuna...

Urtebete beranduago, haizeak eraman ditu hitz goxoak. Lehen kolpean KO. Kablea sartzeko zuloa egiten hasi denerako, Euskaltelek esan du herri txikietaraino ez dela iritsiko, bestela zuloa euren enpresan ere egingo dutela. Horrelako proiektu batean dirua irabazi nahi duen enpresa baten aldetik ez da harritzekoa, badu bere logika.



"Euskaltelek orain esan du herri txikietaraino ez dela iritsiko"

Era berean, normala da Antzuola, Aramaio, Gatzaga eta Elgetako agintariak -oraingoz herritarrek paso egiten dute- haserre egotea. Baina, gainerakoek? Zer diote? Zergatik ez dira, adibidez, udalerrri handietako alkateak agertu, hori ez dela hitz egin zeña esatera Euskalteli? Zergatik ez diote esaten herri txikietan kablea sartzeko ez badu beraie-

tan ere ez sartzeko? Bota dut faltan elkartasun-keinuren bat.

Eta gainerakoak -Eusko Jaurlaritza, MCC, Goiena Komunikazioak, eta Mondragon Unibertsitatea, Gatzagako antzerkian parte hartu zuten aldetik- konforme daude?

Herri txikietakook erosketak egitera herri handietako zentro komertzialetara eraman nahi izaten gaituzte, ikastera edo haurtzaindegira inguruko herrietara, zaborraren eta ur zerbitzua komunean ditugu... Ordaindu behar denerako bagara debagoienar. Guztiok bat! e-ez adarrik jo!

LABUR

Jai batzordea dagoeneko hasi da antolaketa lanetan

Hilabete batzuk geratzen dira herriko jaietarako, baina Jai batzordeak egin du dagoeneko lehenengo batzarra. Hain zuzen, joan den martitzenean elkartu ziren udaletxean herriko hainbat talde eta elkartetako kideak Antzuolako Udaleko ordezkariekin.

Eskola inguruan hainbat lan egin dituzte

Alde batetik, jolastokiaren alboan, Sagasti auzo aldera ematen duen hesia eta espaloien artean baranda jarri dute; izan ere, hesiaren eta espaloien artean zanga handi bat dago eta nahiko arriskutsu zegoen. Bestalde, eskailerak egin dituzte, Sagastitik eskolara joateko, hain zuzen.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Apirilak 5
16:30: Antzuola-Gazteak B (2. erreg.)

PILOTA

Apirilak 8 (Debagoieneko Txap.)
19:30: Olalde-Eskoriatza
Apirilak 5 (Udaberri saria)
17:00: Olalde-Altzaterra III (Nag. pal.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Ikasberri 2 Antzuola 0 (Big. m. erre.)
Antzuola 1 Eskolapioak 2 (Gazteak)

PILOTA

Debagoieneko Txapelketa
Olalde-Oñati (Kadeteak) 5-22
Olalde-Oñati (Nagusiak) 22-9
Udaberri Saria
Olalde-Eskoriatza (Nag. eskuz) . . . 22-6
Gazteleku-Olalde (Nag. paletaz) 24-35

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Juan Cruz

Jaunartze argazkiak

Betiko izango den orogarriak merezi du lan txukuna.
Zatoz Juan Cruzera.

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko apirilaren 4a / 137. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


Aurrerantzean Udala arduratuko da erabilitako olio batzeaz

IRATI AGIRREAZALDEGI

Joan den egubakoitza (martxoaren 28an) ezkerreko Elgetako Udala arduratuko da erabilitako olio batzeaz. Plazan jasoko dute sukaldean erabilitako olio hileko azken egubakoitzetan, 18:00etatik 19:00etara. Furgoneta bat egongo da bertan bilketa egiteko.

Orain dela urtebete pasatxo hasi zen Elgetan sukaldean erabilitako olio jasotzen Maya ingurumen taldea. Joan den egubakoitza ezkerreko, ordea, Udalak batuko du olio, Ecogras enpresaren bitartez, Debagoieneko Mankomunitateak ardura hartu bitartean.

Gehienok sukaldean erabilitako olio behin lanak amaitutakoan harraskatik bota ohi dugu. Baina ohitura hori oso txarra da, koipea ingurumenarendako oso kaltegarria izan daiteke-eta. Ibaietako landaredia akabatzen du eta arratoiendako janari da. Horrez gainera, ur zikinen hodiak ixten ditu, baita ur araztegiaren arazoak sortu ere. Horregatik guztiatik, onena olio birziklatzea dela diote adituek.



Batutako olio birziklatuta, autoendako erregaia egingo dute.

BILKETA, PLAZAN

Sukaldean erabilitako olio kristalezko, plastikozko, metalezko edo brik erako ontzi baten gorde eta hileko azken egubakoitzean

plazara eraman beharko dute elgetarrek, 18:00ak eta 19:00ak artean, gero birziklatua izan dadin. Bestalde, Elgetako tabernariak aurrez berba egin behar-

ko dute olio batuko duen Ecogras enpresakoekin, 943 47 23 35 telefono zenbakira deituta, eta haiek zuzenean joango dira tabernetara olio jasotzera. Bide batez, arduradunek herritarrei jakinarazi nahi diete sukaldean erabilitako olio baino ez dutela jasoko; hala, automobiletako olio zaharrik ezin izango da eraman bertara.

XABOIA OPARI

Hortaz, Ecogras enpresako kideek batuko dute olio Elgetan. Udalak 60 euro ordainduko ditu Ecogras-ekoak Elgetara joan eta olio bilketa egiten duten bakoitzeko. Haiek, berriz, plazara eramandako olioaren truke xaboa emaniko diete opari herritarrei.

Batutako olio birziklatuta, biodiesel izeneko autoendako erregaia egingo dute. Erregai horrek gasolioak baino kalte txikiagoa eragiten du eta, gainera, biodegradagarria da.

Horrenbestez, sukaldean erabilitako olio potoretan gorde eta bilketa noiz izango den kontuan hartu beharko dute elgetarrek. Hurrengo apirileko azken egubakoitzean izango da, hilaren 25ean, hain zuzen ere.

LABUR

Zabalik dago zirkulazio zerga ordaintzeko epea

Elgetako 614 lagunek joan den martitzenean hasi eta datorren maiatzaren 15era arteko epea izango dute ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzeko. Potentzia erdiko eta txikiko autoak dira gehienak, baina badaude ziklomotoiak eta kamioi handiak ere. Zergarik altuena 10.000 kilo erabilgarritik gorako kamioiaren jabeak ordainduko du: 246,95 euro, hain zuzen. Baxuena, berriz, herrian dauden 14 ziklomotoien jabeek: 7,45 euro.

Banku berriak jarriko dituzte herriko kaleetan

Elgetako kaleetan 86 eserleku daude egun, baina ez dira nahiko. Hori dela eta, Udalak banku gehiago jarriko ditu, eta zahartutako batzuk berriitu. Jarlekuak San Rokeko plaza, Kantoikuaren eta Eibarko bidearen arteko lorategian, Pagatza Industrialdeko pasean eta Larragibel zeezarrako errepide ondoan ipiniiko dituzte. Denera, 13. Gainera, Mendizaleen plaza ko hamar bankuak aldatu egingo dituzte, eta gainerakoak margotu eta konpondu.

Ozkarbi Eguna ospatuko dute maiatzaren 4an

Azken urteotako ohiturari jarraituz, maiatzaren 4an Ozkarbi elkarteak eguna ospatuko dute elkarteak bazkideek. Zuzendaritza batzordeak kideek egunean bertan zentratu lagun egongo diren aurrez jakin nahi dutenez, eguneko ekitaldietan parte hartu nahi duten bazkideei izena emateko azken eguna apirilaren 20a dela jakinarazi nahi diete. Informazio zabalagoa nahi duenak, berriz, Ozkarbi elkarteko iragarki taulan izango du horren berri.

HERRITARREN HITZA / Oxel Erostarbe • Geografoa

Aldaketia testiguan

Dezente da GOIBEKOKALEn laguntzeko deia jaso nebanetik, artian ume mokua. Hillekaritik astekarirako bidia onerako izan da. Izandako errebuektak ondo ezagutu ditut eta danei aurre egin dotsagula uste dot. Onena emonez, astero-astero herriko barri garrantzitsuenak batu ditugu. Eta aurrerantzean be egingo dogu. Baten edo bestian jua etorrixak, ez dabalako urteotan GOIBEKOKALEn, gora edo beherarik ekarri. Juan banoia geografiko eskolek hala eskatzen dostelako. Eta Irati Agirreazaldegi arduratuko da Elgetako

barririk lantziaz. Elgoibarkua izan arren, ezaguna da elgerrontzako. Laster deittuko zaittue hangua edo bestekua galdetzeko. GOIBEKOKALE guk besteko mimuekin zaintzeko eskatzia besterik ez jata geratzen. Seguru halan egingo dabela. Eta urtietan egindako lanak etorkizunian be jarraipena euko dabela. GOIBEKOKALE egittiaz herrixa bera ardurtzen dalako.



"Juan banoia geografiko eskolek hala eskatzen dostelako"

Ibanek, gaztetxeak Ainarak, liburutegikuak Marialenak eta zorion agurrak Mariasunek.

Familia haundia da GOIBEKOKALEK daukana. Iratik laster ezagutuko zaittue: Eskolako barri Maite edo Lupek emongo dotsue, umien barri Urik, pelotako barririk Juan Luisek, txirringarixenak Emiliok, ingurumena gainekua Rebekak, Goibekokuak Etor edo

Udaletxera be sarrittan deittu biharko dozu, Juan Ramonek hartuko dotsu. Marian, Juan Ramon, Fernando, Enrike, Karmele, Oskar eta Maite beti laguntzeko prest. Baita alkatia be. Eta oposiziñuan barri Bitorri galdetu.

Hillabetiotan GOIBEKOKALE aurrera ataratzen lagundu dostazuen danoi eskerrak emon gura dotsuet. Lehenau aittatutako danotatik hasi eta galderak erantzunez, eritxizak idatziz edo notizian barri emonez lagundu dozuonoi, milla esker. Danok gara GOIBEKOKALE aurrera atara dogunak. Aurrera ba!

ELKARRIZKETA

ANJEL ALKAIN/AKTOREA

“Jendeari barre eragiteko antzezlanak eskainiko dugu Elgetan”

I.A.
Aurten Korrika ez da Elgetatik pasatuko; Korrika Kulturalaren lekukoa, ordea, jasoko dute elgetarrek. Apirilaren 5ean *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanak izango da, eta guk Anjel Alkain aktorearekin egin dugu berba.


Zer aurkituko du antzezlanak ikustera doanak?

Barre egiteko aukera ezin hobe, duda barik. Gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean jendeari ondo pasatzeko aitzakia eman nahi izan diogu antzezlan honekin.

Umorea da, hortaz, lan honen osagai nagusia.

Bai, horrela da. Orain arte egin ditugun emanaldietan jendeak oso ondo pasatu du. Eta horren adierazle da, esate baterako, obrako eszena batzuetan isilik geratu behar izaten dugula, jendeak testu guztia jarraitu ahal izateko. Izan ere, jendeak barrez hasi eta ez ditu gure berbak entzuten, eta horrela haria gal dezake. Barre eragiteko prestatutako lana da eta helburua lortzen ari garela uste dut.

Umorezko antzezlanetan edo paperetan ikusten zaitugu gehienetan. Ez zara beti lan berdintsuetan jarduteko beldur?



ETB

Jende gehienak telebistatik ezagutzen nau, eta *Sorginen laratza* saioan antzeztan ditudan paperekin umore kutsua dutela, ezin ukatu. Hala ere, beste proiektu batzuk ere badituzte esku artean, umeendako antzerki bat, esate baterako. Hortaz, ez dut beti paper beretan jarduten. Bestalde, ikusleei argi utzi nahi diet *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* barre

eragiteko lana den arren, bertako pertsonaiek ez dutela zerkusirik telebistakoekin.

Eleberririk izan zuen beste arrakasta du antzezlanak?

Oraingoz zortzi emanaldi egin ditugu eta jende asko etorriko zela uste bagenuen ere, emaitza ikusita benetan asmatu dugula esan genezake. Nagore Aranburuk eleberraren oso moldaketa egokia egin du. Gainera, antzezleok Tolosa aldekoak izanik eta antzerkia bertako hizkeran idatzita dagoenez sinesgarri egin dugu obra. Hori izan daiteke, agian, arrakastaren gakoetako bat.

Eta elgetarrei ezer esan nahi diezu emanaldiaren aurretik?

Antzezlanak ikustera joan daitezela. Zapatu gauerako plan polita dela, eta emanalditik irteten direnean ez zaiela barre algarka jarduteko aitzakiarik falta izango, antzerkiko eszenak gogoran izango dituzte-eta.

KIROLA

Sasoia hobetzeko kirol aukera berriak

I.A.
Prestakuntza fisiko eta aerobik zerbitzuan datozen hilabeteotan sasoia hobetzeko zerbitzu berriak eskainiko dituzte.

Apiriletik maiatzera bitartean *aero-training*-a landuko dute, egoera fisikoa entrenamendu eta aerobik teknikak erabiliz hobetzeko asmoz.

Bigarren etapa ekainetik uztaile arte izango da eta, besteak beste, salsa, *funky* eta hola dantza teknikak aerobikoko *aeroboxing* eta *intervalo* teknikekin konbinatuko dituzte, helburu berak lortu nahian; sasoiaren egotea, alegia.

EGUNAK

Norberaren nahien arabera aerobik saioetan parte hartzeko hainbat egun izango dira aukeran:

bata, astelehenean eta eguaztenez, 19:30etik 20:30era; eta beste, martitzenetan eta eguenean, 20:00etatik 21:00etara.

Izena eman nahi duenak udaltxearen bete beharko du orria eskoletan hasi behar duen hilabetea baino lehen. Ikastaroak jaso nahi dituztenek 15,50 euro ordaindu beharko dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dute taldea osatzeko gutxienez zortzi lagunek eman beharko dutela izena, bestela bertan behar geratuko da-eta ikastaroa.

Bestalde, uztailean zerbitzu horietan aldaketak egon daitezke eguenean eta ordutegian.

Elgetarrek, hortaz, aerobikaz eta prestakuntza fisikoaz baliatuz badute sasoiaren egoteko modurik hemendik aurrera kirol zerbitzuetatik prestatutako programa berriekin.



Patxi Basauri, berriz ere alkategai

Joan den astelehenean aurkeztu zuten EAJ-EA koalizioako kideek udal hauteskundeetarako zerrenda. Aurkezpen ekitaldian, Patxi Basauri zerrendaburuarekin batera, Iñaki Galdos Gipuzkoako EAJko presidentea eta Juan Mari Juaristi Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea egon ziren. Argazkikoak Elgetako EAJ-EA koalizioako hautagaiak dira/I.A.

Korrikako ekitaldiak

APIRILAK 5, zapatua

22:00: *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanak, Espaloian. Sarrerak, egunean bertan, 21:00etatik aurrera.

APIRILAK 6, domeka

18:00: Txan magoa, Espaloian.

APIRILAK 7, astelehena

16:00: Korrika Txikia, plazan.

Gero, askaria.

19:30: Alkateak lekukoa hartuko du Epelen.

DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzaga
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

Linazisoro
anaiak moto
lasterketan

Gerra ostean Euskal Herrian egin zen lehenengoetako moto lasterketa bateko argazkia duzue alboko hau. Xabier Linazisorok emandako datuen arabera, Tolosan egin zen, 1945ean. Guztira 14 partaide izan ziren eta 20 bat bira eman behar izan zizkioten Tolosako herri barruan prestatutako zirkuituari. Moto lasterketak sekulako ikusmina piztu zuen eta zale ugari elkartu ziren lasterketa jarraitzeko. Montesa eta Lube markako motoak nagusi ziren partaideen artean.

Agustin eta Xabier Linazisoro anaiak ondo ibili ziren, eta bigarren eta hirugarren sailkatu ziren hurrenez hurren. Argazkian, ezkerretik esku-mara: Agustin Linazisoro; ezezaguna; Sabugo, irabazlea; Gipuzkoako Moto Federazioko presidentea; Xabier Linazisoro; ezezaguna; eta Fernando Ripalda, Bizkaiko Moto Federazioko presidentea, txapelarekin.

Argazkia: Xabier Linazisoro.



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

BERGARA

Trenbide
zaharra

Katabiatik Beheko Estaziora doan trenbide zaharrak ez du aldaketa handirik izan azken urteotan, baina orain dela aste batzuk bidea konpontzeari ekin zioten. Zorua egokitu eta asfalto gorria bota dute, berdeguneak txukundu dituzte eta han ibiltzen den jendearendako eserleku batzuk jarri dituzte. Herritar asko ibiltzen da paseatzen inguru horretan, eta, hala, argiak ere jarri dituzte.



≈ 1993

Ibargaraiko etxebizitza berriak egin baino lehenagoko argazkian Lasagabaster lantegiko tailerra zena ikusten da.



2003

Katabiatik Beheko Estaziora doan tartean txukuntze lanak egin dituzte azken asteotan. Atzean, Lasagabasterko zubia.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

501 sinadura 501 sinadura 501 sinadura 501 sinadura

Bergararron duintasuna
baietz jokuan daualako...

501 sinadura!

apirilaren 1etik 16ra

BERGARA AURRERA abertzale eta ezkertiarren plataforma Udal hauteskudeetan aurkezteko 500 sinadura baino gehiago behar ditugu. Apirilaren 1etik 16ra sinadura bilketa egingo dugu Udaletxeko idazkaritzan edo notaritzan (Ibargarai 20, behea Tf: 943 76 10 73). DNI fotokopia bat eraman, gestioa azkartzeko.

NOTARITZAKO ORDUTEGIA:

- Astelehenetik eguenera, 10:00-13:30
- Eguakitzetan, 10:00-14:00
- Martitzenetan eta eguenetan, arratsalde, 16:00-18:00

UDALETXEKO ORDUTEGIA (idazkaritzan, 1. solairuan):

- Astelehenetik egubakoitzera, 10:00-14.00
- Larunbatetan, 09:00-13:00
- Martitzenetik egubakoitzera, arratsalde, 18:00-20:00

**BERGARA
aurrera!**

WWW.aurrera.org


ADI!



GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

